

2021

JARDUEREN MEMORIA
VITAL FUNDAZIOA

Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

1. EHelburuak, jarduerak eta laguntza-deialdiak 4

2. Gizarte Laguntza Arloa 10

Gizarte-bazterketa	12
Desgaitasuna	16
Gaixotasuna	19
Gizarte-laguntzako beste programa batzuk	22

3. Kultura Arloa 24

Vital Fundazioa erakusketa-zentroa	26
Vital Fundazioa Kulturunea	29
Disziplina artistikoetarako laguntza	36
Kultura berrikuntza	46

4. Hezkuntza, Prestakuntza eta Enplegu Arloa 48

Hezkuntza programak	50
+55 hezkuntza eta prestakuntza	57
Bekak	59
Enplegua eta laneratzea	62

5. Ikerketa Arloa 69

6. Ingurumen eta Ondare Arloa 73

Ingurumen-programak	75
GJH 15aren garapena	77
uskararako eta Euskal Kulturarako laguntza	78
Lurraldearen, azoken eta merkatuen sustapena	80

7. Kirol Arloa 83

Emakumezkoen kirola	85
Oinarrizko kirola	86
Kirol inklusiboa	88
Proba herrikoiak	90

8. Vital Eguna 92



FUNDACIÓN Vital FUNDAZIOA

COVID-19aren ondorioz sortutako krisiaren ondoren, pixkanaka suspertzen joateko urtea izan da 2021. Pandemiaren inpaktu globalak eta krisi ekonomikoak Vital Fundazioak laguntzen dituen elkarte eta erakunde askoren ohiko funtzionamendua aldatzen jarraitu duten arren, erakundeak ahalegina egin du sortu diren beharriaz erantzuteko.

Arabako gizartearekin arduratuta eta inplikaturik dagoen fundazioa garen aldetik, osasun-arloan ikerketa-proiektu berriak bultzatzeko erronkari eutsi diogu, BIOARABArekin dugun lankidetzareagotuz, etorkizuneko krisiei gure eremu hurbilenetik aurre egin ahal izateko. Zailtasunei aurrea hartzeko beharraz jabetu gara, eta, horregatik, programa berritzaileak garatzearen aldeko apustua egin dugu kulturaren eta hezkuntzaren besteak beste. Horretarako, sareak ehundu ditugu erakundeekin batera, prestakuntza eta enplegua sustatzeko, batez ere teknologia berrien arloan.

Gure gazteak, gure adinekoak eta kalteberatasun handieneko egoeran dauden pertsonak -eta horiei ematen die erantzuna gurekin eskuz esku lan egiten duen elkarte-sarearen zati handiak- izan dira, ziurrenik, osasun-alerta egoerak eragindako nahitaezko geldialdiak gehien kaltetutako biztanleria-sektoreak.

Vital Fundazioak Hirugarren Sektorre Sozialarekin eta elkartzuna eta pertsonen zaintza sustatuz lan egiten duten erakunde guztiekin lanean jarraitu du aurten. Ingurumen-izaerako lurraldeko eta biodibertsitatea defendatzen duten programetan gehiago hartu dugu parte, etorkizunean ingurune osasungarriagoan bizitzeko inbertsioa baita, eta gazteen eta kulturaren aldeko apustu esanguratsua egin dugu. Alde horretatik, Fundazioa lurraldeko kultura-bizitza dinamizatzen saiatu da, proposamen berritzaileak kalera eramanez, bai musika-arlokoak, bai beste diziplina artistiko batzuetakoak, kultura-industriaren sektorea dinamizatzeke eta sektore horretako eskaintza-eremuari alternatibak emateko.

Azken batean, 2021. urtea erronka izan da, eta Vital Fundazioak aukera bihurtu du, beharriaz berriak hautemateko, helburuak zehazteko eta jardueraren gehiago bultzatzeko aukera, erakunde eta instituzioekin lankidetzan arituz eta arabarrek gure lurralderako etorkizun hobe baten itxaropena partekatuz.



Jon Urresti García
Vital Fundazioetako presidentea



1

Helburuak, jarduerak eta laguntza- deialdiak

MEMORIA 2021

Vital Fundazioa bere gizarte-ekintzaren jarduera ikuspegi solidario eta garaikidetik garatzen duen fundazioa da, Arabako Lurralde Historikoan aurrerapen sozial, ekonomiko eta kulturala bultzatuz, gizarte hobea eta bidezkoa eraikitzen laguntzeko.

Bere baliabideen kudeaketa Arabako eta Arabako bizi-kalitatea hobetzera bideratutako proiektuei bultzada ematera bideratzen du, bereziki izaera sozialeko programak babestera, bazterkeriaren eta gaixotasunaren aurka borrokatzen laguntzen dutenei lagunduz, enplegurako prestakuntza eta laneratzea bultzatuz, eta Arabako kultura-sarea zabaltzen lagunduz.

Arabako lurraldearen ingurumenarekiko eta ondarearekiko konpromisoaren buru da; biztanleen artean kirola eta osasuna sustatzen ahalegintzen da, eta gazteen sektorearen artean ekintzaitzaren, ikerketaren eta berrikuntzaren aldeko apustua egiten du.

Jarduera-eremu oso zabaletan dihardu, Nazio Batuen 2030eko agendan definitutako Garapen Jasangarriko Helburu (GJH) ia guztiekin bat datozenak; Lurraldearen eraldaketan laguntzeko lanean diharduten eta lankide dituen erakundeekin eta elkarteekin partekatzen ditu estrategiak, eta etorkizun pozgarri baterantz zuzentzen du begirada, hezkuntzaren, zientziaren eta ikerketaren erronka berriei erantzuna emanez.

Arabako gizarte-sareko erakunde guztien gardentasuna, baldintza berdinetan parte hartzea eta lehia askea sustatzen ditu.

Arabako gizarte-eremu laguntzeko deialdiak 2021

Vital Fundazioak jarduera propioetan, lurraldeko elkarte eta erakundeekin egindako lankidetzahitzarmenetan eta laguntza-deialdietan banatzen du bere gizarte-ekintzaren jarduera. 6.320.366 euro, honela banatuta:




Arabako gizarteari laguntzeko deialdiak 2021

Arabako gizarteak eskatzen dituen erronka berriei erantzuteko eta ahalik eta sektore gehienetara iristeko, Vital Fundazioak **laguntza-deialdi berri bi** egin ditu 2021ean, urtarrilean eta irailean.

Lehentasunez baloratu da haren izaera berritzailea, irtenbide berriak eta eraldaketa soziala sortzea; beste laguntza instituzional batzuk izatea; aurreikusitako gizarte-inpaktua eta onuradun kopurua; Arabako gizartean duen ikusgaitasuna; euskararen erabilera, genero-berdintasuna, gizarteratzea eta boluntarioritza bultzatu ditzala, besteak beste.


697.970 euro
112 proiektu
2 laguntza-deialdi

2021eko laguntzen banaketa arloen arabera





Ehunekoaka



Gizartera bideratutako jarduerak eta programak

39 programa

210.730€

Gaixotasunak, desgaitasunak dituzten edo gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzen ari diren pertsonen arreta eta laguntza emateko proiektuak eta programak izan dira ugariak.

Itaka-Escolapios Fundazioa ('Errotazarra 2021-2022', adimen-desgaitasuna duten gazteak eta gazte etorkinak laneratzeko); **SAMSARA Elkarte Soziokulturala** ('Desaislando con Arte II', Langraiz Okako espetxean dauden emakumeekin egindako proiektua); **AI LAKET! Elkartea** ('Boluntariotza hedatuz 21', droga-erabiltzaileen kolektiboetan arriskuak murrizteko); CEAR Euskadi (Atzerriko jatorria duten aurrenerabeekin egindako gizarte-aholkularitza); **Sartu Araba** (Team Digitala: gazteei laguntzen eten digitala hausteko); **URTEDER Arabako Gerontologia Elkartea** ('Esku bat behar nuen eta hanka bat aurkitu nuen', txakurrekin egindako terapiak); eta abar.

Kultura-ekimenak bultzatzeko

25 proiektu

160.950€

Musika jaialdiak eta tailerrak, jazz, umorea, artea eta eduki digital berriak dira laguntzak jaso dituzten kultura-esparruetako batzuk.

Arrakala Koop Elk Txikia ('Baratza, auzoa eta etorkizuna' sortzen ari diren arte eszeniko garaikideei laguntzeko); **DZAST Elkarte Kulturala** ('Jalgi! VOZ Festival' entzuleak ahots-musikara hurbiltzeko ikuskizun berritzaileekin); **Komedialdia Elkarte**a (Komedialdiaren garapena, Vitoria-Gasteizko lehenengo umore jaialdia); **Manuel Iradier Elkarte Afrikanista** (Afrikako Zinemaren Nazioarteko Lehenengo Jaialdia, Afrikaldia 2021); **IN SITU ART Kultura Elkarte**a ('IN SITU Art Festival 2022', esku-hartze artistikoaren lehenengo jaialdia Vitoria-Gasteizko tokiko saltokien erakusleihoetan); **Kumbalaye Batukada Musika Elkarte**a (batukadaren lehenengo topaketaren ospakizuna Araban); **Infierno Dorado S.L.** (Musikan hasteko haurrentzako tailerrak), **Jimmy Jazz** (zuzeneko tokiko musikarako); eta abar.

Hezkuntza- eta ikerketa- programen aldeko apustua

21 proposamen

203.940€

Teknika pedagogiko berriak, balioetan oinarritutako hezkuntza, bizikidetzaren behatokiak garatzeko eta proiektu biomedikoak eta sanitarioak bultzatzeko.

BIOARABA Osasun Ikerketa Institutua (BioHackLab Araba, ikerketa eta berrikuntza biomedikoko laborategia pazienteentzat), **EHU Euskal Herriko Unibertsitatea** (psikofarmakoengatiko farmakutsadura: hondakin-uretako psikofarmakoen kuantifikazioa eta ebaluazioa); **KOKUK Gizarte eta Hezkuntza Esku-hartze Elkarte**a (Elkarbizitarako Gela Federico Baraibar BHIIn, ikasleak kanporatzearen ordeko tresna); **Gatz Harana Fundazioa** (Ezagut ezazu zientzia Gatz Haranaren bitartez); **Nondik S.C.** ('E3 hibridazketak', eskola-inguruneak eraldatzeko modua); **Mendizabala LHII ikastetxea** ('Txagorritxu AUOrako Scape Room', pediatrian ingresatutako haurrentzat); eta abar.

Enpleguari eta laneratzeari laguntzea

2 programa

41.500€

Bi proposamen desberdin saltoki txikien aldeko ekintzak bultzatzeko, hurbileko kontsumoa sustatuz eta kontsumitzailearentzako zerbitzua hobetuz.

Aiarako Kuadrilla ('Dendatik Etxera', erosketak dendatik eroslearen etxera eramateko banaketa-zerbitzua); **Gasteizko Merkataritza Elkarte**a ('Plan Renove Armario II', bigarren eskuko arropa birziklatzeko eta tokiko merkataritza sustatzeko).

Kirola eta jarduera fisikoa sustatzea
13 programa
34.250€

Gutxiengoen kirol-modalitateak eta kirolean errespetua, bizikidetzeta eta ohitura osasungarrien sustapena hobetzeko programak.

El Prado Atletismo Kluba ('Korrika egiteak askatzen du' presoei kirolaren balioak erakusteko); **Viral Sport Club** ('Vitoria-Gasteiz FIP WSTAR OPEN 2021' eta emakumezkoak eta padela tailerrak); **Txirrindularitzaren Arabako Federazioa** (Emakumeen Arabako II. Itzulia), eta abar.

Ingurumena, Arabako ondarea eta euskal kultura
12 proiektu
46.600€

Espezieak berreskuratzeko, energia-arloa hobetzeko eta ondarea babesteko ekintzetarako, baita euskara eta euskal kultura garatzeko ere.

Laudioko Udala (Ermualdea Berreskuratzea); **Iudari Elkarte** ('Uraren indarra, gure errotak'); **Arabako Ekologistak Martxan elkarte** ('Gorbeia Parke Naturaleko azkonarra', gaixotasunak kontrolatzeko azterlana); **Aiarako Udala** ('AIARA 2030 Plana', GJHak bultzatzea udalerrian); **Arabako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritza eta Gobernu Irekia** ('Lanabes Egitasmoa', Arabako eremu sozioekonomikoa euskararen erabilera sustatzeko), eta abar.





2 Gizarte laguntza arloan

MEMORIA 2021

Laguntzen dutenei laguntzen diegu gizartean eragin positiboa eta eraldatzailea duten programak babestuz, baita bazterkeriaren eta pobrezia-aren aurka borrokatzen dutenak ere, bizi-kalitatea hobetuz, gaixotasunari eta desgaitasunari ikusgarritasuna emanez eta bizikidetzaren eta gizarte-kohesioaren aldeko apustua eginez.

1.146.503 €

61 hitzarmen elkarte eta erakundeekin

3 programa propio

763.534 €



Gizarte bazterketa

Bazterketa-arazoak dituzten, muturreko kalteberatasun-egoeretan dauden eta aukeraberdintasuna sustatzen duten pertsonen gizarteratzearen aldeko ekintzak garatzen dituzten programak babesten ditugu.

Desgaitasuna

Desgaitasunen bat duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko proiektuak bultzatzen dihardugu, ikusgarritasuna ematen lagunduz eta herritarrak kolektibo horren arazoei buruz sentsibilizatuz.

Gaixotasuna

Minbiziaren, gaixotasun mentalen, endekapenezko gaixotasunen edo gaixotasun ezgaitzaileen aurkako borroka babesten dugu, laguntza handiagoa behar baitute kaltetutako pertsonen eta haien ingurunearen egunerokotasuna aurrera eramateko, eta osasun-arloko aurrerapen berriak babesten ditugu.

Gizarte laguntzako beste programa batzuk

Adinekoentzako gure laguntza-programez gain, beren ekimenak garatzeko laguntza behar duten erakunde eta elkarte ugariarekin lankidetzan aritzen gara.

Gizarte-bazterkeriaren aurkako programak

Programa horien bidez, Vital Fundazioak gehien behar dutenei laguntzen die. Egoera oso ahulean dauden pertsonak, beren kabuz gizarteratu ezin direnak, arreta berezia jarriz babes gutxien duten kolektiboek, hala nola haurrei, emakumei edo etorkinei.

BERAKAH

Zailtasunak dituzten eta baliabide ekonomikorik ez duten pertsonak eta senitartekoak hartzea eta laguntzea. Premia oinarrizkoenak eta berehalakoak asetzea, gizarteratzen laguntzeko eta lehendik dauden erakunde-laguntzen sarean normaltasunez sar daitezzen edo arreta jaso dezaten.

zente, San Migel eta San Pedro). **250 pertsonak baino gehiagok** beren denbora, ahalegina eta ekarpen ekonomikoak bideratzen dituzte, modu desinteresatuan, San Bizenteko Karitateko Alabekin lankidetzan.

Vital Fundazioak **151.000 euro bideratzen ditu Berakah proiektura**, zerbitzu hauek emateko: entzute aktiboa eta errukiorra, oinarrizko elikadura behar duten pertsonentzat, lege-aholkularitza, arreta psikologikoa, prestakuntzari

eta autoenpleguari buruzko aholkularitza, mikro-kredituak ematea, etxebizitza-gaietako bitartekaritza, boluntarioen prestakuntza, kaleko taldeak, familia-harrera, aisialdiko taldeak eta eskola-laguntza, gaztelaniazko eskolak, arropategia, etab.

Baliabide ekonomikorik ez duten familientzako **Zugaz Jantokiak** eta **Zenakuluak** janari-errazioak eta haurrentzako gosariak eta askariak banatzen dituzte. **Ain Karem Etxea** etxerik gabeko amentzako eta seme-alabentzako egoitza da, eta **Belen Etxea** etxegabetutako eta diru-sarrerarik gabeko familientzako egoitza. **'Tabgha' Despentsa Solidarioa** baliabide gutxiko familientzat da, merkatuan baino prezio merkeagoak ditu-eta.

5.245 pertsona artatuta
116 menu egunero
104 familia: elikagai-sorta hilero
143 familia: erosketak Tabgha despentsan
19 Belen Etxean hartutuak
22 emakume eta 28 haur Ain Karem Etxean
44 mikrokreditu emanak (25.950 €)

BULTZAIN

Gizarte-bazterkeriako eta desgaitasuneko arazoak dituzten pertsonen harrera egiteko elkarte, Zubigarai kalean (Vitoria-Gasteiz)

Etxerik ez duten eta erakundeek eskaintzen dituzten gizarte-zerbitzuetan lekurik ez duten pertsonak hartzea. Gizarte-bazterketako eta kalteberatasun bereziko egoerei erantzutea, errespetua bermatuko duen eta eskubide osoko pertsona gisa duten duintasuna kaltetuko ez duen arreta eskainiz..

2021eko abuztuaren amaieran, 14 urteko ibilbidearen ondoren, itxi egin da alokairu-gastuei aurre egin ezinda, eta Vital Fundazioaren **25.000 euroko** laguntza zorra kitatzera bideratu behar izan da.

ELIKAGAIEN ARABAKO BANKUA

Elikagaiak alferrik galtzea saihestea, elikagaiak eta horiek erosteko dirua biltzea eta gehien behar dutenen artean banatzea.

Banaketako 30 erakunde laguntzailek beren lokalean banatzen diote esleitutako familia bakoitzari; **23 kontsumo-elkartek** jasotzen dituzte elikagai galkorrak, eta harrera-zentroei, egoitzei eta jantoki sozialei ematen dizkiete. Gainera, Brasil kaleko lokalean premiazko eskaerei erantzuten diete.

Vital Fundazioak **25.000 euro** bideratu ditu azaroko azken astean Gasteizko eta probintziako merkataritza-guneetan egin den **Bilketa Kanpaina Handira**, eta **236.000 euro** bildu ditu **dohaintza eta bonuetan**.

5.305 pertsona
1.645 familia artatuak 2021ean



GURUTZE GORRIA

Urrakortasun handiko egoeran dauden pertsonak ahalduzko programak oinarritzko premien estaldura gaitzen duten alderdiak biltzen ditu, eta esku-hartze integralagoa bilatzen du.



107 personas sin hogar
recibieron 882 prestaciones
384 familias consiguieron
1.697 prestaciones de alimentación
289 familias en pobreza energética

Vital Fundazioak Gurutze Gorriaren aldeko apustuari eutsi dio eta **12.000 euroko** ekarpena egin dio **Ettxerik gabeko Pertsonen arreta emateko**, haien oinarritzko premien (elikadura, higieena eta etxebizitza) estaldura erraztuz; **Haurren eta Familien Elikadurarako Prestazioak**, udal-zerbitzuen estaldurarak ez duten kasuetarako; eta **Pobrezia Energetikoagatik Prestazioak**, krisi sozio-ekonomikoak eragindako familiei zuzenduak, diru-sarrerak murrizten ari baitira.

CARITAS

Premia-egoeretan dauden pertsonen laguntzea, pobrenei zerbitzua emanez, eta gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa aldarrikatzea, haien bizi-kalitatea eta gizarteratzea hobetzen laguntzeko.

Esparru pertsonaletik lantzen dituzte marjinazio-arazoak, eta prestakuntza ematen diete bai hizkuntzari bai gaitasun profesionaleri dagokien arloan, baztertuta dauden pertsonen enpresetara jauzi egiteko aukera izan dezaten. Vital Fundazioak **33.000 euro** bideratu ditu bere **prestakuntza-zentrori**.

JEIKI FUNDAZIOA

Drogazaleei adikzioak gaitzen laguntzea, baita prebentzio-, laguntza- eta gizarteratze-programak ere, ikuspegi terapeutiko integral batetik.

Vital Fundazioak honako ekimen hauetan laguntzen du: **HARRERA** tratamendu-eskaerari buruzko **lehen informazio-elkarrizketak** bai egoitzan (**Gizakia Helburu**), bai ambulatorioa (**Aukera**) eta **HAZGARRI**, nerabeei eta gazteei (21 urte arte) **zuzendutako prebentzio- eta laguntza-programa**, zailtasun-egoerak bizi dituzten **gurasoei arreta** eta **gizarte-bitartekariei** laguntza ematea. **Bisitak** egiten dira **ikaste-txetara**, kontsumo hasiberrien beharra eta esku-hartzeak hautemateko. 2021ean **62.500 euro** bideratu ziren bi programak bultzatzeko.

HARRERA:

167 paziente artatu dira eta 73 familia
3.369 esku-hartze egin dira
150 koordinazio egin dira

HAZGARRI:

389 gazte eta nerabe artatu dira
68 familia
1.522 esku-hartze egin dira
268 koordinazio egin dira

INSOLA

Gizarte-bazterkeriako edo pobreziako arriskuan edo/eta egoeran dauden, kontsumoak dituzten, drogamenetasunak dituzten, gaixotasun mentalak dituzten, egoitza-bazterkeria duten, paperik gabeko eta abarreko pertsonen gizarteratzea, berreziketa eta laneratzea hobetzea, jarrerak eta gaitasunak aldatzea sustatuz eta erraztuz, eta genero-harremanak modu positiboan eraldatzea bultzatuz.

Arabako Gizarteratze/Hezkuntza-arloko Elkartek 10.000 euro jaso ditu Vital Fundazioaren eskutik, '**Aldi baterako etxebizitzak**' programak aurrera egin dezan. Programa hori gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen zuzenduta dago. Alde batetik, **berreziketarako gizarteratze-tailerrak** egiten dituzte, eta, bestetik, programak **sabai duina eta bizimodu autonomorako trantsizioa** bermatzen ditu, pixkanaka.

5 tailer

80 pertsonari egin zaie balorazioa

10 pertsonari harrera egin zaie

(7k jarraitzen dute eta 3 integratu dira)



ADSIS FUNDAZIOA

Esku-hartze soziala etorkinekin, gaztelania ikasten lagunduz, 16 eta 18 urte bitarteko titulaziorik gabeko gazteei laneratzeko lagunduz, prestakuntza-moduluak eta jarduera kultural-ludikoak garatuz, motibatze eta haien curriculum-prestakuntza osatzeko.

Vital Fundazioaren **5.000 euroko** laguntza **Oinarrizko Lanbide Heziketako Zentrorako** eta **etorkinekiko esku-hartze sozialeko programarako** erabili da.



120 gazte ikasturte 2tan: Ile-apainketa eta estetika, bulego-informatika, fabrikazio mekanikoa eta ibilgailuen mantentzea.

AGLE

Guraso bakarrek familien, etorkinen eta genero-indarkeriaren biktimen arreta eta sustapen soziala eta pertsonala, gai sozial eta pertsonaletan gidatuta.

Vital Fundazioak **10.000 euroko** ekarpena egin zuen **Loremaitea programarako**, baliabide ekonomiko nahikorik eta gizarte-laguntzako sarerik ez duten **guraso bakarrek familietako adingabeei laguntzeko** zerbitzurako, gurasoen lan- edo prestakuntza-ordutegiarekin bat datozen ordutegi-tarteetan, baldin eta beste zerbitzu normalizatu batzuek estaltzen ez badituzte.

83 familia 126 hau artatu dira



Honako hauek ere gizarte-bazterketaren aurka borrokatzen dute:

BORONDATE ONEKO ELKARTEA (Baztertutako taldeei laguntzeko elkarte); **ZUBIA GURUTZATZEN EKIMEN-ETXEA** (Gizarteratzeko eta laneratzeko tailerrak egiteko elkarte eta ekimen-etxea); **JOSU ETXEA** (Harrera elkarte); **CORAZONISTAS FUNDAZIOA** (Kolektibo behartsuenen hezkuntzaren eta justiziaren alde); **GIZABIDEA** (Presoak defendatzeko elkarte); **GIZARTERAKO** (Emakume prostitutaren harrera, arreta eta orientaziorako Arabako elkarte); **HOGAR ALAVÉS** (Gaixotasun mentala duten pertsonak errehabilitatzeko ongintza- eta kultura-elkarte); **BABESGABEEN PARROKIA** (Jantoki soziala); **SIDALAVA** (Hiesaren Aurkako Herritarren Arabako Batzordea); **ITXAROPENAREN TELEFONOA** (Itxaropenaren eta adiskidetasunaren telefonoaren Arabako elkarte).

Desgaitasuna gainditzeko programak

Mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonen autonomia eta arreta sustatzen lan egiten duten elkarteei laguntza ematen die Vital Fundazioak. Herritarrak beren arazoengatik inguruan sentsibilizatzen laguntzen du, eta aisialdiko eta denbora libreko tailerrak eta programak babesten ditu, haien bizi-kalitatea hobetzeko.

APDEMA

Adimen-desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzea, familiaren laguntza, zerbitzuen kalitatea eta gizarte-mentalizazioa ardatz hartuta. Arabako 1.500 familiak baino gehiagok osatzen dute.

Desgaitasun intelektuala duten pertsonen aldeko Arabako Elkarteak (APDEMA) hitzarmen bat sinatu du fundazioarekin, honako hauek gauzatzeko: dibulgazio-programak, laneratzeko oinarritzko gaitasunak garatzeko **Impulsa-T proiektua** eta adimen-desgaitasuna duten emakumeentzako ahalduentzako proiektu bat, **15.000 eurokoa**.

ASPACE

Garun-paralisia eta antzeko beste desgaitasun batzuk dituzten pertsonak ikusaraztea, haien duintasuna eta eskubideak defendatuz, proiektu parte-hartzaileen eta inklusiboen bidez, eta beti balioestea herritartasun osoa lortzeko behar diren laguntzak.

ASPACE-ARABA garun-paralisien eta antzeko asalduren elkarreak urtero sinatzen du hitzarmena Vital Fundazioarekin, **10.000 euroko** zuzkidura duena, eta honako hauetarako erabiltzen da: **tailerrak eta jarduera artistikoak garatzeko, aisialdiko eta denbora libreko programarako** (haur, gazte eta helduen udalekuak barne), eta **dibulgazioko eta sentsibilizazioko** lanetarako.

AUTISMO ARABA



AEN (Autismoaren Espektroko Nahasmendua) duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzea, arreta pertsonalizatua, integrala eta kalitatekoa bermatuz beren bizi-zikloan zehar.

Autismoaren Espektroko Nahasmenduak dituzten pertsonen defentsan egiten du lan Autismo Arabak. Vital Fundazioak **9.000 euroko** ekarpena berritu zuen elkarrearekin **'Aisialdi terapeutikoaren bidezko laguntza-aldiak'** proiektua aurrera eramateko.

22 pertsonak hartu zuten parte tailer artistikoetan

Garuneko paralisia duten 21 pertsonak udalekuez gozatu zuten

HAR-EMAN PROIEKTUA

Gizarte ireki bat eraikitzeko oinarriak ezartzearen alde borrokatzea, egoera partikular indibidualak kon-tuan hartu gabe, eta adimen-desgaitasuna duten pertsonen beren inguruneetan duten ekarpen positiboa defendatzea.

Vital Fundazioak **6.000 euroekin** babestu du **'Har Eman Martxan'** proiektua, enpresaren eredu inklusibo eta parte-hartzaile berriari laguntzen diona.

ONCE

Itsutasuna edo ikusmen-urritasun larria duten pertsonen eguneroko lanak egiteko ahalik eta autonomia-mailarik handiena ematea, baita ikusmena galtzearen inpaktura modu positiboan egokitzeko baliabideak ere. Kolektibo horren hezkuntza-, lan- eta gizarte-inklusioa sustatzeko zerbitzuak garatzea.

Itsuen Erakunde Nazionalak 4.500 euro jaso ditu Vital Fundazioaren eskutik, eta zabalkunde jardueretara, topaketetara, tailerretara eta hitzaldietara bideratu ditu.

ZALDIHARANA

Zaldi-terapiak eskaintzea desgaitasuna duten pertsonen bizitza hobetzeko, zaldia erabiliz profesional terapeutikoen eta desgaitasuna duen pertsonaren arteko komunikazio-elementu nagusi gisa.

Harana Bailarako Elkartek 9.500 euro jaso zituen Fundazioaren eskutik, zaldi-terapiei (hipoterapia) eskainia den **Zaldiharana eraikinaren irisgarritasun-proiektua** gauzatzeko, gaitasun dibertsitatea duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko. **Hipika inklusiboa da, herritar guztiei irekia**, eta arreta oso indibidualizatua eskaintzen du. **Gaur egun 22 familiak jasotzen dituzte hipoterapia-zerbitzuak.**



100% MUJER
sin prejuicios
añadidos

Por el reconocimiento y el respeto a la diversidad. Contra la discriminación y los estereotipos de género. ¡POR UN MUNDO MÁS JUSTO!

IKERNE (30 años)
Altera, pareja, madre,
y MUJER.

#cienporcienmujer

www.eginez.org/cienporcienmujer

Logos: EGINAZ, EGINAZ, EGINAZ, EGINAZ, EGINAZ, Vital FUNDACIÓN FUNDAZIOA

Desgaitasuna gainditzeko lanean diharduten beste elkarte batzuk:

ASPASOR (Arabako gorren gurasoen eta lagunen elkarte); **DOWN ARABA ISABEL ORBE** (Isabel Orbe Down sindromearen Arabako elkarte); **EGINAREN EGINEZ** (Desgaitasun fisikoa duten pertsonen Arabako elkarte); **FEVAPAS** (Gorren familien elkarten Euskal Federazioa); **USOA BABES FUNDAZIOA** (Desgaitasun intelektuala duten pertsonen babeserako fundazioa); **ITXAROPENA** (Ikusmen urriko pertsonen Arabako elkarte); **TALUR** (Adimen desgaitasuna duten pertsonentzako aisialdi eta denbora libreko elkarte).

Gaixotasunaren aurkako laguntza-programak

Gaixotasunaren aurka borrokatzen duten elkarteei laguntzen diegu, eta ahaleginak egiten ditugu prebentzioan, tratamenduetan eta ikerketan hobekuntzak lortzeko. Solidarioak gara gaitzei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-ekimenekin eta pazienteei laguntzeko ekimenekin.

Minbiziaren aurkako borroka

Minbiziaren aurkako borroka gaixotasuna normalizatzea eskatzen du, eta herritarrak prebentzio-neurrien inguruan sentsibilizatzea. Vital Fundazioak lankidetzeta estua du duela urte batzuetatik Arabako Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartearekin (AECC), Emakume Mastektomizatuen Elkartearekin (ASAMMA) eta Haur Minbizidunen Gurasoen Arabako Elkartearekin (ASPANAFOA).

Vital Fundazioak **26.000 euro** eman dizkio **AECC**ri gizarte-laguntzako eta zabalkundeko programetarako, honako hauek barne hartuta: paziente eta familientzako **arreta pertsonalizatua** etxean, **boluntarioen sustapena ospitaleetan**, **AECCren Martxa Solidarioa** Vitoria-Gasteizen, Amurriion, Agurainen eta Oionen, eta publizitate-kanpainak.

6.000 euroko hitzarmena sinatu du ASAMMArekin, **laguntza eta susperraldi emozionaleko** programarako, **masaje eta drainatze linfatikoko** saioretarako eta **bularreko minbiziaren aurkako II. Martxarako**.

Erakundeak **3.000 euroko** laguntza eman dio **ASPANAFOA**ri, hainbat programa garatzeko: **informazioa, dibulgazioa eta gizarte-sentsibilizazioa**, eta otsailaren 15ean **minbizia duen haurraren nazioarteko eguna** egin dadin.

Vitoria-Gasteizen

2.000 pertsonak hartu zuten parte
minbiziaren aurkako VI. Martxan

1.000 emakumek bularreko minbiziaren
aurkako II. Martxan



Gaixotasun mentalei eta endekapenezko gaixotasunei laguntzea

Integrazio- eta normalizazio-etorkizun batekin konprometita gaude, gaixotasun mentalak eta endekapenezkoak dituzten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetuko duena. Kalitatezko arreta eta gaixotasun horien inguruko sentsibilizazio eta dibulgazio programak babesten ditugu, horiek sustatzen dituzten Arabako elkarteekin lankidetzeta estuan jardunez.

ASAFES

Gaixotasun Mentala duten Pertsonen eta Senideen Arabako Elkarteak (ASAFES) Vital Fundazioaren laguntza izan du **‘Mitoak hautsiz, errealitateak eraikiz’ iragarkian**. Kanpaina horren bidez, hainbat informazio-eta sentsibilizazio-ekintza egin nahi dira, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen eskubideen defentsa sustatzeko eta gizartean erabat sartzeko.

Gainera, erakundeak emandako **19.000 euroak balorazio-praktiken prestakuntza-programara** bideratu dira, gaixotasun mentala duten pertsonen lan-irteera emateko RAEP Enplegu Zentro Berezian (Gaixotasun Mentala duten Senideen eta Pertsonen Arabako Errehabilitazioa). Halaber, **Gazte gunea proiektuari**, gaixotasun mentala duten adingabeei arreta goiztiarra emateko proiektuari eta elkartearen webgunea eguneratzeari.



AFARABA



15.000 euroko lankidetzeta-hitzarmena sinatu genuen **Alzheimerra eta beste Dementzia batzuk dituzten Pertsonen Senideen eta Lagunen Arabako Elkartearekin (AFARABA)**, kalitatezko arreta ematera bideratutako kontzientziazio soziala eta instituzionala sustatzeko, programak eta zerbitzuak sortuz, Alzheimerra eta beste dementzia batzuk dituzten pertsonen eta haien senide eta zaintzaileen ongizatean laguntzeko.

ASASAM

Gaixo psikikoen eta senideen Aiarako elkarteari 9.000 euroko laguntza ematen diogu, **gaixotasun mentalak dituzten pertsonak ezagutarazteko, gizartean birgaitzeko eta dinamizatze**ko jarduerak garatzeko eta gauzatze-ko, baita egokitzeko bide horien ardatz diren familiei laguntzeko ere.

ACABE

ACABE-Araba, Anorexiaren eta Bulimiaren aurkako Arabako Elkartea, elikadura-jokabidearen nahasmenduen **aurka borrokatzen da**, batez ere anorexiaren eta bulimiaren aurka. Psikologo baten laguntza dute kaltetutako pertsonen eta familia-inguruneari laguntzeko. Arreta pertsonalizatuko hitzaldiak eta jarduerak egiten dituzte, eta gaixotasunaren zabalkunde-lanak egiten dituzte herritarrek sentsibilizatzeke. Fundazioak **10.000 euroko** laguntza ematen dio telefono bidezko arreta-proiektuari.

AEMAR

6.000 euroko lankidetzaz berritu dugu **Esklerosi Anizkoitzaren Arabako Elkartearekin (AEMAR), Mojate-Busti Zaitez!** kanpainarako, Euskal Autonomia Erkidegoko igerileku eta hondartzetan egiten den elkartasun- eta sentsibilizazio-ekintza sozialerako. Funtsak lortzea eta esklerosi anizkoitza duten pertsonentzako errehabilitazio-zerbitzuak finantzatzeko erabiltzea du helburu, haien bizi-kalitatea hobetzeko beharrezkoak baitira.



ADELA

Alboko Esklerosi Amiotrofiakoaren Arabako Elkartearen lana ere lagundu dugu **2.500 euroekin**, kaltetutako pertsonen ongizate handiagoa lortzeko.

ATECE

Hartutako garuneko kalteen elkarrekin (ATECE) erantzun egiten die iktus, traumatismo, tumore edo bestelako gaitz baten ondorioz bat-batean garuneko lesio bati aurre egin behar dion kolektibo horren behar nagusiei. 2021ean, Vital Fundazioak emandako **7.500 euroek Fisioterapiako programa** bat garatzen lagundu zuten kaltetuentzat.



ARENE

Gaixo Neuromuskularren Arabako Elkarrekin Prestakuntza, Prebentzio eta Zabalkunde Programak gauzatzen ditu, baita Familiarteko eta Gaixotasunekiko Esku-hartze Soziala ere. Fundazioak **5.000 euro** bideratuko ditu programa horietara.

Honako hauei ere laguntza ematen diegu:

AAL (Laringektomizatuen Arabako elkarrekin); **ACCU ÁLAVA** (Crohn eta kolitis ultzeraduna duten gaixoen Arabako elkarrekin); **ADALAVA** (Diabetikoen Arabako elkarrekin); **ADELES** (Lupus-gaixoen Arabako elkarrekin); **ADELPRISE** (Linfedema primarioa eta sekundarioa duten gaixoen elkarrekin); **ADEFAT** (Ataxia telangiectasia familiarren Espainiako elkarrekin); **ALCER** (Giltzurrunetako gaixoen Arabako elkarrekin); **ARNASA ARABA** (Fibrosi kistikoaren Arabako elkarrekin); **ASAFIMA** (Fibromialgia eta neke kronikoaren sindromearen Arabako elkarrekin); **ASOPARA** (Parkinson Arabako elkarrekin); **MUGARIK GABEKO BIHOTZA** (Gaixo kardiobaskularren eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko elkarrekin); **EZEBA** (Zeliakoen eta zeliakoen senideen Arabako elkarrekin); **BEROA TUTORETZA FUNDAZIOA** (Gaixo mentalen Arabako babes fundazioa).

Gizarte-laguntzako beste programa batzuk

Vital Fundazioak hiru laguntza-programa propio garatzen ditu: Vitalquiler eta 60 urtetik gorakoentzako bi laguntza-mota. Gainera, gure lurraldeko elkarte-sarekoak diren eta beste premia batzuei erantzuten dieten beste erakunde batzuen lana babesten du.

VITALQUILER

Vitalquiler programa aitzindaria da, gizarte-izaera sakonekoa, **etxebizitza bat izateko zailtasunak dituzten pertsonentzat**. 2001. urtean jarri zen abian, une horretan Vitoria-Gasteizen arazoizko prezioaren truke alokairuan zegoen etxebizitza-eskaintza eskasari erantzuteko.

Programa honek alokairu-erregimeneko etxebizitza bat eskuratzen eta mantentzen laguntzen die gure lurraldeko biztanle-sektoreei, diruz lagundutako alokairuak eskainiz, lan-merkatuan finkatzen diren bitartean. Ideia berritzaile horri esker, pertsona askok **etxebizitza duina arazoizko prezioan eskuratzeko** aukera izan dute. Aukera horrek emantzipatzeko, bizitza berri bati ekiteko edo familia bat osatzeko ateak ireki dizkie. Vitalquilerera sartzeko, beharrezkoa da:

380 etxebizitza
228.858 euro diru-laguntzatan
5.914 euroko urteko batez besteko errenta
310,59 euroko urteko batez besteko diru-laguntza
% 99,90eko okupazioa

- Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta izatea.
- Aurreko 2 urteetan etxebizitzarik ez izatea, araudian jasotako salbuespenetan izan ezik.
- Bizikidetzta-unitatearen urteko diru-sarrera haztatuak 9.000 eurotik gorakoak eta araudian ezarritako gehienekoa baino txikiagoak izatea.
- Banku-gordailua edo -abala aurkeztea.

+60 LAGUNTZA PROGRAMAK

Vital Fundazioak diru-laguntzak eta aholkularitza eskaintzen ditu 60 urtetik gorako pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta haien autonomia errazteko. 2002tik martxan dagoen **Bainugelak egokitzeko programari** esker, eskatzaileek beren etxebizitzetan egokitzapen integraleko obrak egin ditzakete, bainuontziak dutxatzeko platerekin ordeztuz eta manpara egokituak eta laguntza-elementuak instalatuz.

Programa abian jarri zenetik **2.797 eskaera** jaso dira guztira (2.330 Vitoria-Gasteizen eta 467 Arabako gainerako herrietan), eta horietatik **2.391 obra amaituta daude abenduaren 31n**. Vitoria-Gasteizen 1.970 ekintza egin dira Vitoria-Gasteizen, eta 421 Arabako gainerako herrietan.

Pertsona horientzako beste ekimen bat **Audifonoak erosteko edo hortz-tratamendu funtzionalak egiteko laguntza-programa** da. Beren errentaren arabera, 60 urtetik gorakoek era horretan egin diezaiekete aurre horrelako artikuluek dakartzaten kostuei.

+60 laguntza programak	eskaerak	Diru-laguntzak
Bainugelak Egokitzeko Programa	35	32.107,25 €
Audifono eta Hortz Tratamenduen Programak	113	68.192,83 €
Guztira 2021	148	100.300,08 €

Beste elkarte sozial batzuk

AMAPASE (Guraso Bananduen Arabako Elkarte); **ARABARNE** (Hezkuntza-premia Bereziak dituzten Haurren Gurasoen Elkarte); **ASCUDEAN** (Adinekoak eta mendekotasuna duten pertsonak Zaintzen dituzten Senideen Elkarte); **IKIRIKI** (Ongizate psikosoziala eta animaliekiko eta naturarekiko elkarreagina sustatzeko elkarte); **TEL-EUSKADI** (Hizkuntzaren nahaste espezifikoak duten pertsonen familien eta lagunaren elkarte).



LAGUNTZA-PROGRAMA **PROGRAMA DE AYUDAS**

+60

Subvenciones para adaptación de baños Subvenciones para compra de audífonos Subvenciones para tratamientos dentales

Bainugelak egokitzeko diru-laguntzak **Bainugelak egokitzeko diru-laguntzak** **Hortzetako tratamenduen diru-laguntzak**



E Kultura arloan

MEMORIA 2021

Artea eta kultura gizartea eraldatzeko adierazpen-tresna diren aldetik defendatzen ditugu. Era berean, beste esperientzia eta ikaskuntza batzuekiko topagune eta erreferentzia-gune izan nahi dugu, pertsonen artean harmonia, tolerantzia eta ulermen handiagoa lortzeko.

1.212.095 €

Egoitza 1 eta kultura etxe 2

85 proiektu (propioak eta lankidetzan)



Vital Fundazioa erakusketa-zentroa

Artea publiko zabalarengana hurbiltzen dugu, talentu berrien sorkuntzak nahiz artista ezagunen lanak erakutsiz.

Vital Fundazioa Kulturunea

Musika, zinema, antzerkia, hitzaldiak, ikastaroak eta tailerrak gure aretoetan. Programa propioak eta lagapenak, kulturarekiko elkargune bat ahalbidetuz.

Disziplina artistikoetarako laguntza

Programak eta proiektuak arlo artistiko guztietako kultura-eragileekin lankidetzan, gure lurraldean punta-puntako kultura-eskaintza zaindua eskaintzeko.

Kultura berrikuntza

Idea-laboretegiak eta arte-diziplina eta -hizkuntza berriak babestuz lan egiten dugu, abangoardiako kultura-jarduera berriak sortzen lagunduz.

Vital Fundazioa erakusketa-zentroa

1.400 metro koadroko erakusketa-espazio zabala, hiru areto-tan banatua eta Vitoria-Gasteizko Posta kaleko 13-15ean kokatua, kulturaren zerbitzura, herritarren eta bisitarien gozamenarako.

31 erakusketa

3 erakusketa-areto

82.212 pertsonak bisitatu zituzten



1. aretoa

Zentroko espazio nagusia da, behealdean erakusketa handietarako areto bat. Urtean zehar **6 erakusketa** programatu dira eta **49.347 lagunen bisita jaso dute**.

'**Arissa. Itzala eta argazkilaria 1922-1936**', **150 argazki** baino gehiagorekin **Antoni Arissa Espainiako argazki-abangoardiaren ordezkariari** eskainia egon da. Argazkiek hiru bloke estilistikotan egin dute ibilbide profesionala: 1922 eta 1928 arteko piktorialismoa; modernitatearen konponbide bisualetaranzko eboluzioa hogeita hamarreko hamarkadaren hasierara arte; eta Ikuspen Berria 1930etik 1936ra arte, abangardia fotografikoa.

Vital Fundazioa erakusketa-zentroak diseinurako eta abangoardiarako atak ireki ditu **Agatha Ruiz de la Prada sortzailearen** eskutik, **40 diseinu adierazgarriekin**, karteekin, binilozko alfonbrekin, Kiko Alcázarrek



egindako argazkiekin eta bere desfileetako bideoekin batera. Kolorez betetako unibertsoa, berezko nortasuna eta estilo ezagun eta nahastezina dituen, merkatuaren arauetatik urrun dagoena.

Farolen prozesio tradizionalaren historia erakutsi du **'Hirirako argiak'** proiektuak, **bere 125. urteurrena dela** eta. Beiragintzaren artea ardatz duen erakusketa-diseinu koloretsu eta modernoa, Vitoria-Gasteizko historian zehar ibilbide didaktiko bat egin duena prozesio honen tradizioan zehar.




Vital Fundazioaren erakusketa-zentroak Dante Alighieri idazlearen heriotzaren 700. urteurrena ospatu du **'Dalí, urte danteskoa'** erakusketa eskutik. **100 xilografia paradisuari, purgatorioari eta inferuari buruz**, Salvador Dalí artista katalanak 1957an Italiako gobernuaren enkarguz **'Komedia jainkotiarra/La Divina Comedia'** ilustratzeko sortu zuena.



'Nestor Basterretxea' atzera begirako erakusketa **300 artelan inguru izan ditu ikusgai, horietako asko inoiz argitara atera gabeak**, eta XX. mendearen bigarren erdiko euskal eskulturaren berritzaile nagusietakotzat jotzen den artista baten sormen-unibertsoa hurbildu dio publikoari.



'Bost más bost' proiektuak **eskultura, argazki, grafiti, musika eta pinturaren alorretako hamar artistaren** lanak erakutsi ditu erakusketa berean. Proiektu kolektiboa eta belaunaldien artekoa da, eta diziplina artistiko ezberdinetako bost emakumek eta bost gizonen kezka eta sentsibilitateak batu dituzte bertan.



2. aretoa

Lehen solairuan dago, eta jarduera askotarako espazio zabala eta irisgarritasun osoa ditu, mugikortasun urriko pertsonen sarrabidea bermatzen dien igogailu bati esker. **14.250 pertsona** bildu dira **13 erakusketa** ikustera.

Aitor Rentería, Dorleta Ortiz de Elguea, Fernando Gil, David Frank Brandon, Maite Unzurrunzaga, Jon Landa García-Unceda artisten margolanak izan dira protagonista 2. aretoko erakusketa, eta baita ere, **'Makers'** en sorkuntzak; **Harrera/Acogida de Bilbao Formarte** diziplina anitzeko erakusketa; artista audioarrena, **San Roke Kofradiaren** eskutik; **'Vigo & Gasteiz'** artisten lankidetzak; **Vital Argazkien Nazioarteko Lehiaketa** (1991-2004);

eta **2021eko Vital Arte Lehiaketako** lanen aukeraketa bat; eta **lehiaketa bereko 2020ko edizioko hiru irabazleen** baterako beste erakusketa bat.




3. aretoa


Areto honetan **18.615 pertsonak** ikusi dituzten beste 13 erakusketa izan dira. Gehienak hainbat elkarte eta talderenak izan dira, hala nola **Autismo Araba, ArabaClik, Gazteiz Mendi Kluba, Sancho el Sabio Vital Fundazioa, Viphoto, EHUko Arte Ederren Fakultateko Pintura Masterreko ikasleak** (bi erakusketa egin zituzten) eta **Irudika ilustrazio lehiaketako irabazleen** erakusketak. **Naia Aristondo, Inés González de Zárate** eta bere zeramikak, José Luis Catón eta konfinamendu garaiko sormena, **Xabier Agirre** bere olio-paisaiekin edo Jon Martínez argazkiekin 'Mendia femeninoan' izan dira euren lanak 3. aretoan ikusgai dituzten beste artista batzuk.



Kordoi Etxea

Vital Fundazioaren egoitza den XV. mendeko eraikin gotiko-zibil enblematiko honek **Fundazioaren ondareko piezak biltzen dituen erakusketa** bikaina hartzen du etengabe: interes artistikoko altzariak, antzinako pintura eta eskulturak, letoizko iturri zirkularrak, limosna-platerak izenaz ere ezagunak, eta jatorri askotako zeramikak. Erakusketa gotorleku-dorrearen lubanarroan dago.





Vital Fundazioa Kulturunea

Zuzeneko kulturarako gune bat, helbide berean -Bakea kalea 5, Dendarabako 1. solairua- bi espazio balioaniztun dituena, Fundazioaren ekoizpen propioko kultura-eskaintza nahiz beste kolektibo batzuen kultura-ekitaldiak barne hartzen dituztenak.

199 jarduera
14.998 partaide

Vital Fundazioa Kulturunea	Jarduera kopurua	Bertaratu kopurua
A aretoa	129	11.767
B aretoa	70	3.231
Guztira	199	14.998



Fundazioak antolatutako jarduerak	Jarduera kopurua	Bertaratu kopurua
Astearte Musikalak	17	2.225
Jazz Vital	5	496
Euskal Zinemaren Astea	6	626
Euskal Zinema Dokumentalaren Astea	5	303
'Hitzak' hitzaldi-zikloa	8	638
Guztira	41	4.288

Lagapeneko jarduerak	Jarduera kopurua	Bertaratu kopurua
Kontzertuak	14	1.243
Dazz Jazz	1	268
Hitzaldiak	104	6.340
Zinema eta ikus-entzunezkoak	21	1.422
Mendi Tour Vital	4	499
Antzerkia eta dantza	3	232
Poesia	6	266
Argazkigintza	3	79
Magialdia	2	361
Guztira	158	10.710



FUNDAZIOAK ANTOLATUTAKO JARDUERAK

Astearte Musikalak



Duela hiru hamarkada baino gehiagotik hona, eta etengabe, Vital Fundazioak 'Astearte Musikalak' ganbera-musikaren ziklo horren edizio berri bat eskaintzen du urtero. Asteartero, azarotik martxora bitartean, Vital Fundazioa Kulturunean gure inguruko interprete gazteen, bakarlari ospetsuen, bikoteen, laukoteen edo boskoteen kontzertuak egiten dira, baita nazioan eta nazioartean ospe handia duten orkestrak ere.

2021ean **ganbera-musikako hamazazpi emanaldi** egin dira. Urtarrilean, otsailean eta martxoan, **2020-21 denboraldiko hamaika kontzertuz** gozatu dugu hainbat interpretazioen eskutik, hala nola **Jorge Tabarés piano-jotzailea, Bizigarri hirukotea, Cosmos Quartet, Musikeneko ikaslez osatutako Quintoniks, R.S. Basque Faktor boskotea, Canto Ijurko bikotea, Boomsound emakume musikarien taldea, Jesus Guridi Musika Kontserbatorioko ikasleen ordezkaritza bat, Stratos Projet bikotea eta Lina Tur Bonet eta Música Alchemica laukotea.**

Azaroan eta abenduan, 2021-22 denboraldi berriari hasiera emateko zazpi kontzertu izan dira. Bertaratutako ikusleek **Notos laukotearen, Jakob hirukotearen, Vojin Kocic-en gitarraren, Jose Luis Sola tenorraren, nazioarteko bakarlariren hirukotearen, Ellinor D 'Melon bikotearen eta LiedArt Ensemble harizko seikotearen** interpretazioak entzun ahal izan zituzten.



Jazz Vital



Jazz Vitalek bat egiten du gure kultura eskaintzarekin genero honen zaleei atsegin emateko, erreferentziazko eta ospe handiko erakunde akademikoak diren Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiko, Vitoria-Gasteizko Jesus Guridi Musika Kontserbatorioko, Gasteizko Luis Aramburu Udal Musika Eskolako eta Gasteizko Udaberria Musika Eskolako ikasleen eskutik.

Vital Fundazioa Kulturunearen agertokiak **bost errezitaldi berri** hartu ditu, maiatzeko ostegun guztietan eta ekaineko lehenengoan, **Jazz Vital zikloaren bosgarren edizioan**, aurreko urtean koronabirusaren pandemiaren ondorioz bertan behera geratu ondoren.



Euskal Zinemaren Astea


Erreferente bihurturik, duela 37 urte sortu zenetik inolako etenik izan gabe, Euskal Zinemaren Astea urteko topaleku bat da, non industria zinematografikoa eta publikoa elkartzen diren gure lurraldean egindako zinema onenaren inguruan. Otsaileko sei egunetan zehar, ikusleek euskal profesionalak 2020an zuzendutako edo ekoiztitako zinema-ekoizpen onenetako batzuk ikusi eta saritu ahal izan dituzte.

Bost film luze eta bost film labur proiektatu dira otsailaren 22tik 27ra gure aretoan. Saiotara joan den publikoa epaimahaikide bihurtu da, eta **David P. Sañudok zuzendutako 'Ane'** filma aukeratu du **37. edizio honetako irabazle**, hau da, Pablo Agueroren 'Akelarre', Imanol Rayoren 'Hil Kanpaiak', Juanma Bajo Ulloaren 'Baby' edo Mireia Gabilondoren 'Erlauntza' lanen aurretik.

Estibaliz Urresolaren 'Polvo Somos' lanak aste honetako **film labur onenaren** saria lortu du, 'Paul Urkijoren 'Dar Dar' filma, Aitor López de Aberasturiren 'Buruak', Andoni Martinezen 'Buen plan' eta Beñat Fontanedaren 'Ni una más' lanen aurretik.

'Gutako bat' saria **Patricia López Arnaiz** gasteiztar aktoreak irabazi du bere ibilbide zinematografikoagatik.






Euskal Zinema Dokumentalaren Astea

Vital Fundazioak antolatuta, ekimen honek lehen Euskal Zinemaren Astean sartzen zen genero dokumentalari ematen dio protagonismoa. Gaurkotasunak eta kalitateak berezko garrantzia eman diote ziklo honi. Jardunaldiak dokumentalaren aurkezpena barne hartzen dute, ondoren proiektioari ekiteko eta ikusitakoari buruzko solasaldi-eztabaida baten eskutik amaitzeko.


Programa honen zazpigarren edizioak **bost dokumental** proiektatu ditu urriaren 25etik 29ra, euskal profesionalak zuzendutako lan onenen aukeraketa, askotariko gai erakargarriak barne hartu dituen programazioan. **'Norberaren gela'**, Ainhoa Urgoitia eta Enrique Reyren lana, lehen euskal argazkilariren bizitzaz mintzo da; **'Aztarnak-Huellas'**, gure haurtzaroko urteek gugan uzten duten aztarnari buruzko gogoeta da, Maru Soloresek zuzendua; Aitor Merinoren **'Fantasia'** lanak familiarekin berriz elkartzea islatzen du; Natxo Leuzaren **'El Drogas'** filmak Enrique Villareal musikariaren bizitza kontatzen du; eta Maider Oleagaren **'Kuartk Valley'**, lehen euskal westerna da.



LAGAPENeko JARDUERAK

Kulturuneako kontzertuak

Vital Fundazioak eta Gazteak, gazteentzako EITB taldeko euskarazko irratiforumulak, kontzertuziklo honen bigarren edizioa bultzatu dute gure aretoan, eta streamig bidez jarraitu ahal izan dira Vital Fundazioaren webgunean eta Gaztearen webgunean. Aurtengo edizioak bi berrikuntza izan ditu: kontzertuak adin tarte gazteagoei zuzenduta egon dira eta aretoan, edukiera mugatua, esperientzia zuzenean jarraitzeko aukera izan duten ikusleak egon dira.



Olatz Salvadorrek, Duplak eta Kai Nakaik osatu dute musika-asteburu oso baten kartela, apirilaren 16, 17 eta 18an, artearen mundua sustatu eta dinamizatu eta publikoa berriro erakarri nahi izan duena, baina **etxetik ere gozatu ahal izan da, gainera, ETB-1en emititu delako.**

Hanut Munson

Vital Fundazioak gure hiriko bizitza soziokulturala berreskuratzeko eta bere komunitate kulturalarentzat tresna baliagarria izaten jarraitzeko duen nahiak bultzatuta, **musika elektronikoko kontzertu** hau egin da, kontzertu zabalenean, irailaren 24an.

Asier Rodriguez musikari eta gitarra irakasleak eta **Alvaro Larrory** bateria-jotzaile, DJ eta programatzaileak zuzeneko ikuskizun bat eskaini dute etenik gabe Vital Fundazioa Kulturunean, eta bertan, 'ISdeO'ren bisualak (Ibón Sáenz de Olazagoitia) eta musika izan dira **ikus-entzunezko esperientzia errepikaezin** baten protagonista bakarrak.

Itzali argia eta ikusiko duzu

Gizarteratzea sustatzen duten eta gizartean eragin positiboa eta benetako aldaketak sortzen dituzten erreferentziatzko ereduak sortzen laguntzen duten proiektuei babesa eta ikusgarritasuna ematen diegu.

Vital Fundazioak 'Itzali argia eta ikusiko duzu' aurkeztu du azaroan, **erretinosi pigmentarioak jotako Ibon Casas rockzalea protagonista duen dokumentala. Formatu inklusiboan** egin da emanaldia, ikusmen- eta/edo entzumen-degaitasuna duten pertsonengan pentsatuta; horretarako, **azpituak eta audio-deskribapen integratua** izan ditu. Jardunaldiak, gainera, publikoarekin irekitako eztabaida eta zuzeneko musika eskaini ditu.

**APAGA
LUZ
Y
VERÁS**



'Hitzak' hitzaldi-zikloa

Zientzia eta kultura publiko zabalari hurbiltzea, gure aretoa topagune izan dadin eskainiz, izan da urte osoan zehar Vital Fundazioa Kulturunean dibulgaziozko zazpi hitzaldiko ziklo bat egitea bultzatu duen motibazioa.

Hizlariak **izen handiko pertsonak** izan dira, eta beren esperientzia pertsonal eta profesionalak, gairak-istorioak eta ezagutzak partekatu dituzte publikoarekin. Askotariko gai buruz aritu dira: **ingurumena, kirola, dibulgazio zientifikoa, tokiko meteorologia, nutrizioa edo garapen pertsonala.**

Odile Rodríguez de la Fuente biologo, zinema-ekoizle eta idazleak, Félix Rodríguez de la Fuente doktore ospetsuaren alabak, eman dio hasiera hitzaldi-zikloari, **klima-aldaketaren erronkari** buruz hitz eginez, eta **Evelyn Segura** zientzia dibulgatzaileak bere esperientzia partekatu du **'Historien boterea biodibertsitatea salbatzeko'** hitzaldian.



Martin Giaccheta, Heziketa Fisikoaren Zientzietan lizentziaduna, Nutrizioan aditua eta celebrieten entrenatzaile pertsonala da eta gazteen **bizi-ohitura onak** aurkeztu dizkie. **Noemí de Miguel** kirol kazetariak **'A la carrera'** kontatu du bere bizitza, **Irene Junquera** kazetariak **jarrerak bizitzan gertatzen dena nola markatzen duen** azaldu du, eta **Zaida Joga** nutrizionista eta psikologoak ongizatearen gakoetarako buruz hitz egin du.

Era berean, Vital Fundazioa Kulturunean izan da **José Antonio Aranda**, Euskalmeteko (Eusko Jaurlaritzza) ardura-duna eta **'Arabako Lautadako eguraldi txarra'** azaldu du, eta **Ignacio López-Goñik**, mikrobiologoa eta dibulgatzaile zientifikoak, **'Hurrengo pandemiarako prestatuta'** hitzaldiarekin etorkizunerako gakoak eman ditu.

Cortada

Tokiko ekimen kulturalak partekatzen ditugu eta haien bilakaeran laguntzen diegu. UPV/EHUren Arabako Campusarekin lankidetzan aritu gara XXV. edizioa bete duen Cortada Jaialdia ospatzeko. Jaialdi hori Euskal Herriko eta Estatuako zinema-sariketen egutegian formatu txikiko zinemaren esparruan erreferente finkatu da.


Aurten, abenduaren 15etik 18ra, **28 film labur** lehiatu dira, Vital Fundazioko Kulturunean **lau jardunalditan** eman direnak, eta jarduera artistiko paraleloak programatu dira, hala nola super 8 mm-ko tailerra, zuzeneko ikusizkoak izan dituen kontzertu bat edo hitzaldiak.

Sari nagusia Ian De la Rosaren **Farrucas** filmarentzat izan da. Gainera, Mel Arranzek **animazio onenaren** saria eskuratu du **‘Azaletik azalera’** lanagatik, eta Raquel Calvo Larralde eta Elena Molina Merinok lortu dute **dokumental kategoria** eramatea **‘Yungay 7020’** filmari esker. Bestalde, **euskal film labor onenaren** saria **‘Un bananero no es casualidad’** (Luiza Gonçalves) lanak irabazi du, eta **Gureak** saria **‘Begiak hesteko artean’** (Jorge Moneo) lanak.



Mendi Tour Vital

Mendiko nazioarteko zinemarik onenak lekua du Vital Fundazioa Kulturunean. Mendi Film nazioarteko jaialdiko film onenen zirkuitu ibiltariak mendiko, abenturako, muturreko kiroletako eta naturako 14 film ikusgarri erakutsi ditu Vitoria-Gasteizen, 9. edizioan. Horietatik 8 saritu dituzte.



Otsailaren 15, 17, 18 eta 19an, jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin, film handiak proiektatu dira: Hillary – Ocean to Sky, Everest – The Hard Way, Out of the Blue, etab.

Lau euskal ekoizpen ere nabarmendu dira: ‘Arriesgarse a vivir’, Mikel Zabalza, Alberto Iñurrategi, Juan Vallejo, Juanjo San Sebastián, Nives Meroi eta Romano Benet alpinistekin, The Walk On Project Fundazioaren inguruan; ‘Mendian hil, hirian hil’, Iñaki Peña zuzendari eta zainketa aringarrietako mediku espezialistaren eskutik, Euskarazko Film Onenaren Saria; eta Mikel Sarasola kayaker donostiarra protagonista duten film bi, berak zuzendutako ‘The Tears of Shiva’ eta Ruben Cresporen ‘Aterpean ateri’.

Disziplina artistikoetarako laguntza

Vital Fundazioak kultura defendatzen du nortasunaren sinbolo eta denboran zehar izan dugun aberastasun sortzailearen erakusgarri den aldetik, garai, ohitura eta bizimoduetako aldaketak islatzen baititu. Horregatik, diziplina artistiko guztiei laguntza eman eta sustatzen ditugu, kultura gure Lurraldera hurbiltzeko.

MUSIKA

Euskadiko Orkestra

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertu ugari eskaintzen ditu denboraldi bakoitzean, ziklo desberdinetan banatuta, baita estatuko eta nazioarteko hainbat musika-erakunderekin lankidetzan ere.

Vital Fundazioak **10.000 euroko** laguntza eman dio taldeari, Vitoria-Gasteizen egin diren **2021/22 denboraldiaren inaugurazio- eta amaiera-kontzertuak** garatzeko.



EGO

Euskal Herriko Gazte Orkestra (EGO) Euskal musikari gazteentzako prestakuntza-tresna bihurtzea du helburu nagusi.

Urtean zehar egiten diren topaketetan, egungo orkestra-errepertorioa praktikatuz eta aztertuz, eta ospe handiko profesionalen ikuskaritzapean, gazteek, bakarka zein atalka, hainbat programa lantzeko aukera dute, eta kontzertu-bira batekin amaitzen da lan hori. EGOr **5.000 euroko** laguntza ematen diogu.

Schubertiada Araba

Schubertiadaren laugarren edizioa, **Franz Schubert musikagilearen musika ospatzeko** sortutako ekitaldia, Angostoko, Tuestako eta Bachicaboko Aita Pasionisten elizetan egin da. Gaubeako Udalak, Bartzelonako Franz Schubert Elkartearen eskutik, maila handiko sei kontzertuak antolatu ditu, eta Vital Fundazioaren **6.000 euroko ekarpena** izan dute, lurraldeko eremu hori kultura-jardueraz hornitzeko eta haren ondarea sustatzeko, zehazki eliza erromanikoak.

Bernaola Zikloa

Musika Garaikidearen Nazioarteko Jaialdiak hemezortzigarren edizioa bete du aurten, Vital Fundazioaren laguntzarekin. Erakundeak **5.000 euro** bideratu ditu sortu berri diren musika garaikideko doako **14 kontzerturen** ziklo honetara, baita dantzarekin eta teknologia berrieekin duten interakziora ere. **Sinkro Musika Elkarateak** antolatu du jaialdia.



AAVOZ



Opera eta Zarzuelaren Lagunen Elkarteari ere laguntza helarazi dio erakundeak, **kantuari eta ahots-teknikari buruzko ikastaro** bat egiteko, **koralistei, abesbatza-zuzendari, abeslariari eta abarri zuzenduta**, eta **Gabonetako kontzertuak egiteko, 2.500 euroko zenbatekoan**.

Dazz Jazz

Dazz Jazz Jaialdiak lau kontzertu eskaini ditu uztailaren 5etik 8ra. Dazz klubak antolatuta eta Vital Fundazioaren partaidetzarekin **-5.000 euroko** ekarpena egin du- jazz maite dutenek kalitate handiko lau musika proposamenez gozatu ahal izan dute Jesus Guridi Musika Kontserbatorioan: **Jorge Pardo Trío, Alfredo Rodríguez Trío, Andrea Motis Quartet** edo **Sacatubón**.

Gainera, erakundeak Vital Fundazioa Kulturunea utzi zuen, azaroaren 14an **Janine Johnson** abeslari britainiarren kontzertua egin ahal izateko. Bira europarra egin zuen, **'A night of Bond'** ikuskizunaren eskutik.

Vitoria-Gasteiz Club Jazzaldia

Vitoria-Gasteizko Jazzaldia **44. edizioa** berreskuratu du – aurreko urtean bertan behera utzi behar izan baitzuten pandemiaren ondorioz-, eta Vital Fundazioaren laguntza izan du, **9.000 euro** bideratu baititu musika-ekitaldi horretarako, Vitoria-Gasteizko biztanleen artean klasikoa eta nazioarteko ospea duena.

Uztailaren 14tik 18ra, erabilera anitzeko espazioaren agertoki berri batean, Iradier Arenan, hartu ditu goizeko eta arratsalde-gaueko ekitaldiak, eta Printzipal Antzokian arratsaldeko kontzertuak egin dira. **Nazioarteko musikariak** eta jazz nazionalerako selekzio zainduak, **Anne Pacey eta Antonio Sanchez** batera jotzaileek edo **Letter One Rising Stars**-en irabazleek Vitoria-Gasteizen jo dute, baina **Pablo Martín Caminero** gasteiztarra eta **Miguel Salvado** gitarrista bilbotarra entzuteko aukera ere izan dugu, besteak beste.

Osteguna Rock

Araña del Rock Kultura Elkartek antolatutako Osteguna Rock Festival jaialdiak sentzazioak berreskuratu ditu eta jendearekin elkartu da berriro Iradier Arenan ekainaren 19an. Fundazioak **5.000 euroekin** lagundu du musika jardunaldi honetan **Kokein, Señor No eta Rockaina eta Crazy Keys** arabarrek osatutako kartel indartsu eta oso bat aurkeztu ahal izateko.



Midnigh Boogie Weekend



Soul eta R&B jaialdi honen **bosgarren edizioak**, Vital Fundazioak eta **Midnight Boogie Kultura Elkarateak** antolatuta, zuzeneko musika saioak eskaini ditu azaroaren 25etik 27ra bitartean, baita Nina Simone ospetsuaren historia kontatzen duen **'Amazing Nina'** filmaren emanaldia eta **DJen saioak**, The Garage aretoan.

Fundazioak bere Vital Fundazioa Kulturunea aretoa laga du **'Little Niño descubre a Aretha Franklin'** izeneko **ipuin kontalari musikal** baterako. Kontzertu honekin, Dani Llabrések idatzitako eta Jaime Pantojak ilustratutako **haurrentzako ipuin saga bat** aurkeztu da **'Little Niño' (Bang Ediciones)**, Beatles, Rolling Stones, David Bowie, Aretha Franklin edo Elvis Presley bezalako **herri musikako artista ospetsuenen** unibertsoak txikienei ezagutarazteko.

Beste musika-kolaborazio batzuk

Vital Fundazioak musika-jarduerak garatzen dituzten hainbat erakunde ere babesten ditu, hala nola **Jesus Guri-di Musika Kontserbatorioa** (ikasleei ikasketetan laguntzen die), **Luis Aramburu Musika Eskola** (instrumentuak erosteko) eta abar.

Cine y Televisión



Gazte Film Fest

Zirkuitu komertzialetan erakusten ez den eta kalitate zinematografikoa, eklektikotasun tekniko-estilistikoa eta aniztasun tematikoa nagusi dituen mundu osoko ikus-entzunezko lan garaikidea eskaintzea, giza eskubideen problematika desberdinak bereziki azpimarratuz.

1.800 partaide

959 saio irekitan

841 hainbat eskolatan

ekoizpen baino gehiagorekin, askotariko programazio bizigarriarekin: nortasuna, kideetasuna, adiskidetasuna, aktibismo feminista, gazteen abortua edo zorientasunaren kontzeptua dira jorratu diren gaietako batzuk, besteak beste.

Haur eta gazteentzako tailerrak egin dira, eta proiektuaren faseak ikastetxeen lankidetzaren estuarekin garatu dira: filmak aurrez hautatzea, programak hautatzea eta komisariotza, komunikazioa eta diseinu grafikoa, harik eta programak jendaurrean aurkeztu arte.

Arabako Ikus-entzunezko Ekoizleen Elkarte (APIKA)

Arabako lurralde historikoan eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikus-entzunezkoen industriaren jardura sustatzea. Kulturaren eta industriaren artean diharduen sektore horri balioa ematea eta ezagutaraztea, eta ikus-entzunezko ekoizpenaren munduan lan-sare bat eta kontaktu bat sortzea lortzea.

Vital Fundazioak **6.000 euroko** laguntza eman dio **APIKari, Arabako Zinema Dokumental Meeting Point** egiteko. Ekitaldi horietan jarraitzen dituztenentzat ezagutza eta esperientzia interesgarriak eskaintzen dituzten hitzaldi eta tailerrak antolatzen dira. Aurten ere **7.500 euroekin** parte hartu du, ikus-entzunezko proiektuak hobetu nahi dituen **Apika Audiovisual Project Lab** izeneko ekimen berri batean, bai gidoian, bai ekoizpen eta aurkezpen faseetan.

Apikak **fikziozko film luzeen lau proiektu eta bere laborategirako bi telesail** aukeratu ditu. Horietako hiru proposamenek askotariko zinema generoak eta ikuspegiak dituzte, eta Arabako ekoizleak dira.

FesTVal- Telebistaren Vitoria-Gasteizko Jaialdia

Telebistari eta irratiari eskusiboki eskainitako lehenengo jaialdia, formatu guztietan: lehiaketak, magazinak, telesailak, kultura, hezkuntza eta gizarte dibulgazioko programak, informatiboak, haur, gazte eta helduen entretenimendua.

Ezinbesteko hitzordua da ekoiztetxe, kate, telebistako profesional eta ikusleentzat, eta erreferente bihurtu da sektorearentzat. **FesTVal jaialdiaren 13. edizioa** abuztuaren 31tik irailaren 5era bitartean egin da, bi egoitza nagusitan: Europa Biltzar Jauregian eta Arabako hiriburuko Principal Antzokian. Vital Fundazioak **18.000 euro** bideratu ditu FesTValera.

Antzerkia

Paraiso antzokia



Paraiso antzokiak, haur eta gazteentzako antzerki-sorkuntzarako zentro den aldetik, Vitoria-Gasteizko Beñat-Etxepare Antzerki Aretoaren kultura- eta hezkuntza-proiektua egin du, Vitoria-Gasteizko Antzokien Udal Sarearekin eta Vital Fundazioarekin lankidetzan.

Areto honetako programazioaren barruan, Fundazioak Paraiso antzokiarekin elkarlanean dihardu 2003tik

Vital-Antzerki programan, familian antzerkira jolasteko programan, haur hezkuntzako ikasleekin familietan jardura artistikoak bultzatzeko antzerki-programazioan. 2016az geroztik, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta DBHko gainerako programazioekin ere parte hartzen da, **Ikuslearentzako Sarien bidez**.

2021ean, Vital Fundazioak **15.700 euro** bideratu ditu programa hori eta beste ekimen batzuk garatzeko, **2018-2021eko Europako POCTEFA-Mind the Gap proiektuaren** barruan, zeinak Hezkuntza Artistikoa eta alfabetatze kulturala bultzatu nahi dituen. Aurten, **‘Haziara in the Mapping jaialdiarekin’** lankidetzan hasi gara, **1-6 urteko haurrentzako antzerki-eskaintza** bateratzeko. Lehenengo edizio honetako programa azaroaren 2tik abenduaren 5era bitartean garatu da, **hainbat emanaldi, hitzaldi, ikastaro eta tailerrekin**.

Marianisten Antzerkiaren Astea

Vitoria-Gasteizko **Santa Maria Ikastetxeak (Marianistak)** Antzerki Astea antolatzen du duela bi urtetik. Bigarren edizio honetan **6 eta 18 urte bitarteko neska-mutilek interpretatutako 8 musikal** antzeztu dira, hezkuntza- eta gizarte-educia duten gidoiekin. Fundazioak **7.000 euroko** laguntzarekin hartu du parte.

Dantza

Altraste Dantza

Altraste dantza da Zuriñe Benavente eta Ignacio Monterrubio **mugimenduaren eta soinuaren lengoia berrien inguruan** egiten dituzten sorkuntza garaikideko lanak batzen dituen izena.

Danzálava proiektua zuzentzen eta koordinatzen dute, **Arte Eszenikoetako Arabako profesionalak prestatzeko**, eta beste erakunde batzuekin lankidetzan, inprobisazio eta dantza garaikideko ekitaldiak Vitoria-Gasteizko Artium Museoan. 2021ean, danzalavaren bosgarren edizioa garatu da, eta aurrerapen handia izan da arte eszenikoaren modalitate horren nazioarteko hedapenean. Vital Fundazioak bere garapenean lagundu du **3.500 euroekin**.



Poesia

‘Poetak maiatzean’ jaialdia

Arabako poesia zabaltzea da Hunkitu Arte Elkartearen helburua, eta ahalegin handia egiten du diziiplina artistiko hori gizarte-geruza guztietara hurbiltzeko, hainbat agertokitan errezitaldiak eginez.

Duela bederatzik urtetik hona **‘Poetak maiatzean’** Nazioarteko Poesia Jaialdiak mintegiak, errezitaldiak, kontzertuak, poesia bisualaren erakusketak, irakurketa herrikoikiak eta abar antolatzen ditu.

Bertako poetek eta gonbidatuek, taldeek, elkarteek, poesiarekin lotutako tailerrek, kantautoreek, musika-taldeek, aktoreek, musikariek, musikariek, dantzariak, dantzariak hartzen dute parte, hiri osoan poesia zabaltzeko, eskolan, unibertsitatean, liburutegietan, tabernetan, merkataritza-guneetan eta hiriko leku esanguratsuetan.

Fundazioak **8.000 euroko ekarpena** egiten dio Zinemaldiari, eta **Vital Fundazioa Kulturunea** lagatzen du **6 egunez erabiltzeko**.

3.900 pertsona

84 jarduera

Arabako 18 herri

500 poeta eta musikari

691 lan

Pintura

Vital Arte Lehiaketa



Vital Fundazioak antolatutako lehiaketa honek gure lurraldeko kultura-sektorea bultzatzen lagundu nahi du, eta hemezortzi urtetik gorako arabar artistei irekita dago pinturaren, eskulturaren, argazkigintzaren eta bestelako tekniken diziplinetan. Gaia librea da.

Aukeratutako eta saritutako lanak ikusgai egon dira ekainaren 2tik 27ra Vital Fundazioaren erakusketa-zentroan eta, gainera, www.fundacionvital.eus webgunean lehiaketara aurkeztutako lan guztiak ikusi ahal izan dira.

Vital Fundazioak **1.500 euroko lau sari eman ditu, eta erakusketa-areto bat utzi die artista irabazleei**, 2022ko programazioan baterako erakusketa bat egiteko.

Ilustrazioa eta komikiak

Irudika

Irudigintzaren arloan potentzia handia duten herrialdeen eta gure lurraldearen arteko leihoz izatea da Irudika, Euskadiko Ilustratzaileen Elkartearen ekimena. Vital Fundazioak 20.000 euroko laguntze eman dio elkarteari. Lau jarduera-ildo ditu: hitzaldiak, hitzordu profesionalak, tailerrak eta egonaldi artistiko bi Vitoria-Gasteizen, Bilboarte Bilbon eta La Maison des Auteurs d'Angoulême artean.

'Irudika' Ilustrazioaren Nazioarteko Topaketa Profesionalak V. edizioa egin du urriaren 28tik 30era Artium Museoan. **37 proiektuz** osatutako **mahai-inguru eta tailerren** hiru egun izan dira, Belgikatik, Txiletik eta Portugaletik etorritakoak edo haiekin lotutakoak, baita hiru herrialde horietako agenteekin eta Mexiko, Argentina edo Frantziatik etorritako beste batzuekin egindako hitzordu profesionalak ere. **Elkarrizketak eta on line hitzorduak** ere egin dira, ilustrazioaren munduko **18 eragilerekin**.

Vital Fundazioak **Irudikako egonaldi-programan** ere laguntzen du. Bi balio gaztek, Araiz Mesanza ilustratzaileak eta Raquel Meyers artistak, 2020an hiru hilabetez La Maison des Auteurs de Angoulême eta Bilboarte artean **egonaldi artistikoa** egin zutenek, beren lana erakutsi dute Vital Fundazioa erakusketa-zentroan 2021ean.



Atiza

Vital Fundazioak komikiaren munduari ematen dion laguntza **Atiza komikigileen elkarteari** ematen dion laguntzan ere gauzatzen da. Kolektibo horrek urteak daramatza lanean komikiaren eta bere profesionalen alde Araban.

Erakundearen **6.800 euroko** ekarpenak **Crash Commic 2021** antolatzen lagundu zuen. Lehiaketaren helburua tokiko komikigintzan talentu berrien lana deskubritzea, babestea eta zabaltzea da, eta 12 eta 35 urte bitarteko arabarrentzat da. **Azaroan egin da lanen erakusketa Zas Kultur aretoan.**

Liburuak

Liburu azoka

Arabako Liburu Saltzaileen Elkarteak antolatutako **VI. Liburu Azoka** Vitoria-Gasteizen egin da azaroaren 5etik 14ra bitartean. Anegón, Ayala, Casa del Libro, Elkar eta Zuloa liburu-dendek **standak** jarri dituzte **Urrezko Zeledonon plazan**, eta literaturarako gune bihurtu da.

Azokak Vital Fundazioaren laguntza handia du, **6.000 euro**, eta jarduera paraleloak ere eskaini ditu, hala nola hitzaldiak, ipuin kontak-lariak, aurkezpenak eta liburuen sinadurak.



Liburu Zaharraren eta Bigarren Eskuaren Azoka

Vital Fundazioak, halaber, **Euskadiko Liburu Zaharren Elkarteak (ALVE)** antolatutako Liburu Zaharren eta Bigarren Eskuko Azoka babesten du, **4.000 euroekin**. Ekainaren 25etik uztailaren 11ra bitartean, irakurzaletasuna, bibliografia, bildumazaletasuna, liburu zahar eta erabilia eta bigarren eskuko liburua maite dutenek Urrezko Zeledonon plazan zortzi stand izan dituzte eskura, haien zaletasunaz gozatzeko.

Argazkigintza

Kikute Elkartea

Kikute Elkarteak **Arabaclick** bultzatu du, **Argazkigintza eta Mugikorraren Topaketa**, argazkigintza mugikorra-



5 erakusketa

90 egileren 228 argazki

227 egileren 796 irudi aurkeztuak

ren bidez zabaltzen diren aukera ugariak ezagutzarazteko eta argazkigintza maite duen tokiko komunitate bat sortzeko, teknologia horri buruz hitz egin ahal izateko.

Arabaclick azokaren hirugarren edizioak **ibilbide zabala egiten du Araban eta bertan bizi direnen artean, bost erakusketen bidez**, baita zenbait jarduera paraleloren bidez ere, hala nola irailean eta urrian egin diren hitzaldiak eta prestakuntza-tailerrak.

Vital Fundazioak **13.000 euroko** ekarpena egin dio Arabaclicki, eta **Vital Fundazioa erakusketa-zentroko areto bat utzi dio.**

Arabako Argazkilari Elkarteak

Arabako Argazkilari Elkarteak Vital Fundazioaren partaidetza izan du ia lanean hasi zenetik **Argazkilaritza Astelehenak** egiteko, **argazkilaritzako profesionalekin topaketak eta jende guztiarentzat zabalik.**

6.000 euroko ekarpen ekonomikoa **Viphoto Jaialdia garatzen laguntzeko ere erabiltzen da;** izan ere, galeriak bisitatzeko ohiturarik ez duten kezka artistikoak dituzten pertsonen artean argazkigintzaren inguruko ideiak trukatzeko tokia da. Praktika artistiko garaikideak irakasten ditu, bereziki gazte gorakorrenak.

Magia

Arabako Ilusionisten Elkarteak

Vital Fundazioa eta **Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Magia Jaialdia -Magialdia-** duela urte batzuk hasi ziren lotzen, lankidetzaz hitzarmenen eta erakundearen kultura-guneen lagapenaren bidez.

2021ean, irailaren 13tik 19ra, **Vitoria-Gasteizko XXXIII. Nazioarteko Magia Jardunaldiak** egin dira kalean, antzokietan eta hainbat kokapenetan, eta nazioko eta nazioarteko ilusionistek hartu dute parte.

Vital Fundazioa Kulturunea aretoa izan da **Haurren Gala: '1, 2, 3 Magia!'** emanaldiaren agertokia eta bi neurozientifikoren eta azti baten arteko **'Pillados por sorpresa'** dibulgazio-ikuskizunarena.

Vital Fundazioaren **6.700 euroko** laguntzak **MagialdiAraba** programa ere hartzen du bere baitan, VII. edizioan -abuztuaren 30etik irailaren 12ra bitartean- alaitasuna gure lurraldeko **16 herritara** eraman duena, magia, animazio, hurbileko magia eta jende guztiarentzako ilusionisten emanaldien eskutik.



Vital Araban zehar

Udako hilabeteetan kultura eta entretenimendua Arabako hainbat lekutara hurbiltzea da Vital Fundazioak urtero martxan jartzen duen programa propio honen helburua, askotan Arabako herrietarako esku-ragarria ez den kultura programazioa eskainiz.

Vital Araban zehar' itzuli da uda honetan, lurraldeko kuadrillei kultura jarduera gerturatzeko asmoz. **'Vital Araban zehar' ekimenaren XVII. edizioa** maiatzetik irailera bitartean izan da, eta **93 jarduera** eraman ditu, sei kuadrilletako (Vitoria-Gasteiz izan ezik) **48 udalerrri arabarretara eta Trebiñuko Konderriko bi herritara** iritsi direnak. Bertaratutako ikusleek hainbat diziplinaz gozatu ahal izan dute, hala nola 50 musika-talderen kontzertuez, 39 antzerki-emanaldiz eta 4 abesbatza-errezitaldiz. Jarduera horiek lurraldeko udalek erakutsitako askotariko lehenetasunei eman diete erantzuna.

Etika

Etikako Euskadiko Kluster Fundazioa gizartearen esparru guztietan moralarekin bat datozen pertsonen jokabide etikoak, balio etikoak, jarduerak eta jarrerak sustatzen dituen erakundea da, eta etikari buruzko ikasketa- eta hausnarketa-zentroen elkarlana eta lankidetzaz sustatzen ditu.

Vital Fundazioa Etika Klusterrarekin lankidetzan ari da 2015ean bere jarduerari ekin zionetik. 2021ean, **Etikako Euskadiko Klusterra Fundazioak Lidergo Etikoaren III. Kongresua** aurkeztu zuen irailaren 29an Goiurin. Aukeratu gaia honako hau izan da: **‘Etika eta erronka klimatikoa. Landare-munduaren adibidea biziraupenaren erronkaren aurrean. Basoak’**. Lehendakaria izan zen bertan eta **Biologia, Etika, Komunikazio eta Zuzenbidearen munduko profesionalak** basoei buruz hitz egin dute, ingurumenaren narriaduraren aurkako borrokan giltzarri baitira, planetako karbono dioxidoa xurgatzen laguntzeagatik eta biziraupenaren erronkaren aurrean duten ereduagatik, hala nola landare-mundua, ekosistema eta izaki bizidunen eta gizakientzako habitata.

Beste kultura-lankidetzaz batzuk

Urtean zehar beste hitzarmen batzuk sinatu dira **lurraldeko zazpi kuadrilletako kultura-elkartekin** eta **Dulantzi, Añana, Arraia-Maeztu, Artziniega, Asparrena, Bernedo, Eltziego, Lagran Lantaron, Urizaharra, Gaubea, Urkabuztaiz edo Haraneko udalekin**, baita **ACOA** Arabako Kontzejuen Elkartearekin, eta **ACOVI** Vitoria-Gasteizko Kontzejuen Elkartearekin ere, kultura hedatzen laguntzeko.

Hainbat eskualde-etxerekin lankidetzan aritu gara, hala nola **Andaluziako Seneca, Asturiasko Covadonga eta Centro Gallego**, baita **San Prudentzio, San Roke eta Andre Maria Zuriaren kofradiekin** eta **Estibalizko Ama Elkartearekin, Mendietako Santo Tomas Elkartearekin, Mendi Artean eta beste zenbaitekin** ere.

Era berean, **Miniaturen eta Maketen Elkartearen, Argia 3 Kultura Elkartearen, Europako Sustraiak Elkartearen, Urrezko Zeledonen eta Las Cuatro Torresen** dibulgazio-lana ere babestu dugu. Aipatutakoek tradizio handia dute gure hirian eta beste batzuek, berriz, beste kultura batzuk hurbiltzen dizkigute, hala nola **Afrika-Euskadi Elkartek** edo **Mauritania-Euskadi Elkartek**.

Artium Museoaren, Denon Eskolaren, Gauekoak elkartearen, Fernando Buesa Fundazioaren edo Mario Onaindia Fundazioaren proposamenei laguntzen diegu.



Kultura berrikuntza

Vital Fundazioak ingurune egokiak aurkitzen laguntzen du Araban kultura-jarduera berriak garatzeko, pentsamolde desberdinak babestuz eta egitura berriak garatzen lagunduz, kultura-abangoardiak sortu, ekoitzi, hedatu, salerosi eta zaintzeko.

LAB-A 'Kultura eta gizarte berrikuntzarako laborategia Araban'

Sormen artistikoko prozesuetan oinarritutako irudimen kolektiboko programa bat da. Fundazioak 2020an abian jarri zuen III. Laguntza Deialdira aurkeztu zen, eta **20.000 euro** bideratu ziren horretara.

LAB-A lanaldi-programa gisa diseinatu da, non, berrikuntza sozialeko eta tokiko ekintzaitzako prestakuntzaz gain, ezagutza-, jakintza- eta afektu-sare bat ehuntzeko asmoa dagoen. Ekimen honek bi urteko iraupena du, eta zortzi eragilek esperientziak eta motibazioak trukatzeko gure lurraldeko kultura-ondarea aberasteko.

Partaideak: Gaztefilmfest, INSPIRARTE Elkarte Soziokulturala, Lazarraga Kultura Elkartea, Pez Limbo, Thusia Koop. Elk. Txikia, Baratz Aretoa, Garaion eta Bitartean Jolasean elkarteak.

Aurten proiektuaren lehenengo fasea gauzatu da **AZALAN egonaldiak** eginez, landa eremuan, Lasierako herrian, dagoen espazioan, arte bizien sorkuntza, ikerketa, esperientziaz, etengabeko prestakuntza eta programaziorako prestatua, hiru kultura eragilek lagunduta. **Artistek gorputzean oinarritutako arteak lantzen dituzte, egiteko eta esateko moduak esperientziaz, diziplina eta hizkuntza artistiko berriak ezagutzeko.**



Top Araba eta Batera

Vital Fundazioak **Lazarraga Kultura Elkarteari 9.000 euroko laguntza** ematea erabaki du, **Araban euskal kultura eta sormen eremua** dinamizatze diseinatutako **Top Araba** proiektua babesteko. Erakundeak aurkeztutako laguntzen II. deialdira aurkeztu zen proiektu hori.

Lazarraga Kultura Elkartea 2013an sortu zen, Gasteiz Antzokiaren barruan, **euskararekin lotutako kultura-jarduerak sortzen eta sustatzen laguntzeko.**

Top Araba edozein diziplinako sortzaileei irekita dago, eta lurralde horretan bizitzea da baldintza bakarra. **Ideen laborategi moduko topaketen bidez**, Arabako kultura- eta sormen-industriak dinamizatu nahi dira, non sortzaileek, enpresek eta erakundeek proiektuak parteka ditzaketen, lan-sareak sor ditzaketen eta kultura-sorkuntzan inplikaturako sektore guztiak harremanetan jar ditzaketen.

Gainera, Lazarraga Kultura Elkartek, **Oihaneder Euskararen Etxearen** bitartez, Euskal Herriko 16 eta 30 urte bitarteko gazte euskaldunei zuzendutako kultur proiektuak garatzeko laguntza deialdia jarri du abian. **‘Batera, kultura proiektuak elkarrekin’** izena jarri zaio ekimen honi eta Fundazioak beste **3.000 euro** bideratu ditu bertara.

‘Hezkuntzak’ proiektua

Inmersiones Kultura Elkartek artearen eta hezkuntzaren arteko proiektu bat egiten du urtero, eta 2021ean bosgarren edizioa bete du. ‘Hezkuntzak’ proiektuak proposatzen du **arte garaikideak** gunetipikoak alde batera uztea, hala nola kultur zentroak eta museoak, **ikastolen, ikastetxeen eta institutuen ateetara** hurbiltzeko. Vital Fundazioaren **4.000 euroko** laguntzarekin finantzatzen da.

2021ean, **Natalia Albeniz** artistak sareei buruzko hausnarketa-lan bat egin du **Egibide, Urkide, Federico Baraibar eta Ekialdeko lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleekin**. Selfie-tik autoerreturatraino. Azalekoenetik barru-barruraino eta konplexueneraino. Horrela, artistaren eta gizarte gazteenaren arteko elkarrizketarako eta elkarre-raginerako espazio berriak sortu nahi dira.

Plató proiektua

Plató proiektua ohiko ekoizpena baino askoz gehiago da, **Araban sortutako apustu kolektiboa da**, konpartitzeko gogotik eta Gasteizko **Parasite Kolektiboa, SleepwalkCollective, Larrua Proiektua eta Tripak konpainien** elkar-lanerako nahitik sortua, diziplina desberdinetatik ikerketa eta praktika artistiko garaikidea ulertzeko modu bat partekatzen baitute.

Inspirazio eta sorkuntza kolektiboko proiektu honen ondorioz, **pieza experimental eta diziplinar-tekoa sortu da (dantza, antzerkia, ikus-entzunezkoak, arte plastikoak, argia eta soinua)**. Vital Fundazioak 3.000 euroko laguntza eman dio sormenezko collage horri.


TEDxVitoriaGasteiz

TEDxVitoriaGasteiz TED Talks (**TED ekitaldiak, Teknologia, Entretenimendua, Diseinua**) lizentzia ofiziala duen erakunde independentea da, eta zabaltzea merezi duten ideiak partekatzeke foro bihurtu nahi du.

2021ean, **hitzaldi-ziklo ospetsu hau** maiatzaren 8an izan da Gasteizko Europa Jauregiko aretoetan, helburu horretara **5.000 euro** bideratu dituen Fundazioaren laguntzarekin.

2015ean TEDx Vitoria-Gasteizen lehenengo ekitaldia egin zenetik, Internet bidez zabalduetako hitzaldiek milioika bistaratze dituzte.

214 pertsona akreditatu
12 solasaldi zuzenean + 1 aurretiaz grabatua
2,5 milioi inpaktuu sare sozialetan
5.348 pertsonen ikusi zuten streaming-a



4 Hezkuntza, prestakuntza eta Enplegu Arloa

MEMORIA 2021

Kalitatezko hezkuntza- eta prestakuntza-proiektuak bultzatzen ditugu, gaitasunen eta gizarte-balioen ikasketza hobetuz. Talentua beka-programen bitartez babesten dugu, laneratzea aukera-berdintasunean defendatzen dugu ekintzaile berriak ahaztu gabe eta tokiko merkataritza babesten dugu.

1.762.525 €
44 proiektu eta programa



Hezkuntza programak

Gaitasun digital berriak eta ekintzailetzakoak, lanbide-heziketa, hezkuntza emozionala eta balioak garatzera zuzenduak, gizartea oinarritik eraldatzeko.

+55 hezkuntza eta prestakuntza

Kalitatezko irakaskuntza, adina edozein dela ere, 55 urtetik gorako pertsonen hainbat gaitan ezagutza berriak emanez, beren gaitasunak handitzeko.

Bekak

Talentua eta gure lurraldekoikasle gazteen ahalegina bultzatzea, hizkuntzetan, teknologian, gaitasun profesionaletan eta unibertsitatean trebatzeko beka-programa zabala eskainiz.

Emplegua eta laneratzea

Arabako kuadrilla eta udalerrietan gizarteratzeko eta laneratzeko programak aurkeztzen dituzten instituzioak eta erakundeak babesten ditugu, baita ekintzaile eta enpleguaren sustapena ere.

Hezkuntza programak

Vital Fundazioaren helburuetako bat da gazteenei txikitatik prestakuntza integrala ematen laguntzea, askotan arauzko hezkuntzan sartzen ez diren diziplinetan hezten lagunduz. Gainera, lanbide-heziketa eta ekintzaitza sustatzeko programa espezifikoak babesten ditu. Hori guztia hezkuntza-erakunde, -elkarte eta -entitateekin lankidetzan.

‘Har ezazu kontrola’ hezkuntza digitala

Vital Fundazioak eskaintzen du programa hau eta 80.000 euro bideratu ditu helburu horretara. Programak teknologia berrien (Internet, sare sozialak, smartphone-ak, etab.) erabilerari lotutako arriskuei eta ondorioei buruz orientatzea eta horiek behar bezala erabiltzen irakastea du helburu.

Hitzaldi eta tailerren bidez, helburua da bigarren hezkuntzako ikasleek, haien gurasoek eta irakasleek **teknologia kontzienteago erabil dezatela eta oinarrizko segurtasun-jarraibideak bete ahal izatea**. Prestakuntza doakoa da, eta **euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez** ematen da, ikastetxeen lehentasunen arabera.

‘Har ezazu kontrola’ 2019an jarri zen abian, Julen Linazasoro adituaren laguntzarekin, 10 urte baino gehiagoko esperientzia baitu hezkuntza-arloan. Ekimenak arrakasta handia izan duenez, **programa zabaldu eta lehen hezkuntzara helarazi da**. Gainera, saioak programatu dira ikastetxeetan, **+55 kolektiboarentzat eta, oro har, herritarrentzat, indarkeria digitalari buruz**.

65 ikastetxe
771 tailer (lehen eta bigarren hezkuntzan)
16.075 ikasle arabar
42 tailer irakasleei
103 familia (1.545 pertsona)
17 pertsona +55

KONEXIO-ONA

Eduki birtualekiko erresilientzia eta pentsamendu kritikoa sustatzea, baita eduki horiek haurren eta gazteen garapenean duten eraginarekiko ere. Mundu birtualean zein fisikoan zailtasunei modu egokian aurre egin ahal izateko behar diren indarguneak garatzen laguntzea.

Bizi garen gizarteak planteatzen dituen behar berriekin inplikatu da Vital Fundazioa, eta **6.400 euroko lankidetzahitzarmena sinatu du haur eta nerabeen arteko harreman osasuntsuak sustatzeko KONEXIO-ONA elkartearekin, ‘Zer ikusi, hura ikasi/Qué veo, Qué hago’ programa aurrera eramateko**. Arabako ikastetxeetan nerabeekin eduki birtualak lantzeko app bat da.

1.387 lizentzia
47 ikasgela
141 saioa
7 ikastetxe

Genero-indarkeria prebenitzeko kanpaina

Arabako gazteen artean gizonen eta emakumeen arteko harreman desberdinei buruzko hausnarketa kritikoa sustatzeko, gizarte bidezkoagoa eta zuzenagoa sortzeko; sare sozialen bidez berdintasunari eta genero-indarkeriari buruzko beharrezko informazioa zabaltzeko; eta hezkidetzari, berdintasunari eta/edo zuzentasunari buruzko ezagutzak, jarrerak eta trebetasunak hobetzeko, berdintasunean oinarritutako bizikidetzak sustatzeko.



1.643 gazte
68 ikasgela
18 ikastetxe
Enplagu Planeko 7 talde
Aisialdiko begirale talde 1


Vital Fundazioak **Arabako Gurutze Gorriaren** bidez sustatutako kanpainak **44.000 euroko** laguntza du. Gaztelaniaz eta euskaraz eskaintzen da Arabako ikastetxe guztietan. Arabako Lurralde Historikoko **ikastetxeetako** (DBHko 3. eta 4. mailak), **Lanbide Hastapenetako zentroetako**, **HHEko** (Helduentzako Eskola) eta gazteria aldatzeko prozesuan parte hartzen duten **erakundeetako** ikasle gazteei zuzenduta dago. Ekintza espezifikoak egin dituzte egun bitan: **martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna, eta azaroaren 25a, Emakumeenganako Indarkeriaren Nazioarteko Eguna.**

‘Gazteen Artean’ Hiesa eta Sexualitatea ikasgeletan

Programak sexualitateari eta GIBak eragindako infekzioari buruzko informazio zorrotza eta objektiboa eskaintzen die gure lurraldeko 14 eta 19 urte bitarteko gazteei. Ikastetxeetan egiten diren eztabaida-hitzaldi eta lan-tailerren bidez, gaixotasunaren alderdi garrantzitsuenak transmititu nahi dira, eta kutsatutako pertsonetikiko justifikaziorik gabeko beldurra ezabatu, haiekiko errespetua sustatuz.

Duela 20 urte sortu zenetik, ‘Gazteen Artean’ 51.300 **neraberengana iritsi da, 37 ikastetxeren bitartez.** Vital Fundazioak urtero **68.000 euroko** hitzarmena du Arabako Hiesaren **Aurkako Herritar Batzordearekin (HIESALAVA)**, eta horietatik **42.000 euro** programa horretara bideratu ziren.

Bi hamarkada hauetan hainbat hobekuntza ezarri dira, hala nola **AXESORA WhatsApp** zerbitzua, prebentzioko eta hezkuntzako esku-hartzearen informazioa eta irismena hurbiltzeko helburuarekin. Mugikorrek linea horri esker, **gazteek Whatsapp bidez egin ditzakete kontsultak**, erantzunaren berehalakotasuna bermatuz. Ezarri zenetik, zerbitzu horrek **2.106 online esku-hartze erregistratu ditu. Horietatik, 801 aurrez aurreko bihurtu dira** nerabearen eta SIDÁLAVAREN arteko zuzeneko komunikazioa lortzeko.



Gazteentzako Hezkuntza Emozionala. Awake-Gasteiz

16 eta 22 urte bitarteko neska-mutilen hezkuntza emozionala sustatzen du, bizipen-tailerren bidez, beren berezko gaitasunen eta bertuteen autoezagutzan lagunduz eta, horrela, sormenez eta osotasunez garatzeko helburuak eta ahaleginak bideratzen lagunduz.

Vital Fundazioak **8.000 euroko** laguntza ematen dio **AWAKE-Gasteiz** elkarteari, autoezagutza, garapen pertsonala, bizi-asmoa eta bokazioa lantzen dituen ikaskuntza esperimentalean oinarritutako proiektu honetan. Aurten **aurreko edizioetako 15 gazte sartu dira boluntario** elkartearen. 2021ean, **zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeentzako etxebizitza eta zentroetako gazteekin** egin da lan, genero-estereotipoekin, aniztasuna sustatuz eta inklusiorako heziz.

7 edizio

167 hautagai gazte

84 gazte onaratuak

900 jarraitzaile sareetan

Gatazka Prebenitzeko Curriculum Programa

Gatazka edozein gizarte-talderen eta gizakiaren hazkunde- eta garapen-prozesuaren zati saihestezina da. Ikastetxeentzako erronka gatazkak modu hezitzailean lantzea da, ikasleek gatazkak modu eraikitzailean konpontzen ikas dezaten.

Gizarte eta Hezkuntza arloko esku-hartzeko KOKUK Elkarteak Gizarte eta Hezkuntza arloko esku-hartzeko programak gauzatzen ditu, eskolari balio erantsi gisa eta guztiontzako kalitatezko hezkuntza bermatzeko, errendimendu altuko eta baxuko ikasleen arteko desberdintasunak konponduz.

Vital Fundazioak **22.000 euroko** laguntza eman dio KOKUKi, **2021-2022 ikasturterako** Gatazkaren Prebentzioko Programa garatzeko **zazpi ikastetxetan**: Miguel de Cervantes HLHI, Gasteizko Santa Maria HLHI, Abetxuko Ikastola, Francisco de Vitoria BHI, San Ignacio HLHI, Judizmendi HLHI. Erakundeak elkarrearekin duen inplikazioa gauzatu da, halaber, Federico Baraibar BHIko Elkarbizitzarako Gela proiekturako **23.000 euroko** zuzkiduran, ikasleak kanporatzearen ordezkotresna izan dadin, eta lehenengo laguntza-deialdian hautatu zuten.

Gizarte- eta hezkuntza-ekintza diseinatu da hautemandako babes- eta arrisku-faktoreen arabera; ikasgela barruko eta kanpoko gatazkak, irakasleekin, familiekin edo ikaskideen artean. Irakasleek hautemandako jokabide disruptiboak eta ikasleek kezkatzen dituzten egoera zehatzak ere kontuan hartu dira.



‘Hitz Kolpez – A golpe de palabra’

Genero-indarkeriaren, eskola-jazarpenaren eta cyber-bullying-aren aurkako sentsibilizazio-kanpaina Arabako gazteentzat. Ikasleek eszenatokitik bertatik bizi duten antzerki-antzeppen baten bidez eta bizitakoari buruzko ondorengo eztabaiden bidez, indarkeria mota desberdinak jorratzen dira, hala nola genero-indarkeria eta eskola-jazarpena. Homofobia eta transfobia ere identifikatzen dira. DBHko 3. eta 4. mailako ikasleentzat eta gurasoentzat da.



Gazteriaren Foru Erakundeak garatzen du programa hori, Vital Fundazioaren lankidetzarekin, eta eskola-programak ere babesten ditu: **‘Ikusgelak’** (jolas-jardueren bidez ikasgeletan konfiantza-dinamikak sortzeko) eta **‘Arnastu’** (naturarekin harremanetan jartzeko eta ingurune naturalean ikasteko). 2021ean, **35.000 euroko** lankidetzaz izan da.

Hei Txiki Herritarren Eskola Irekia

Familiei eta haurrei zuzendutako jarduera-programa, helburu nagusi eragileen (ordezkari politikoak, gizarte-kolektiboak, teknikariak eta herritarrak) ezagutzak hobetzea duena, herritarren partaidetza-ereduaren garapena eta hazkundera sustatzeko.

Hei Txiki Vital tailerren eta hitzaldien bidez garatu da urteko azken hiruhilekoan. **Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarren Partaidetzarako Zerbitzutik** egiten da, eta Vital Fundazioak **15.000 euroko** lankidetzaz du zerbitzu horrekin. 2021ean, erakundeak **HEI Elkarte** eremuan ere parte hartu du, hiriko elkarteekin lan egiteko, denbora eta baliabideak eskaintzeko eta haien eta erakundeen arteko harremana errazteko.



‘Bihotz eskola’

Bihotz Eskolaren helburua da bihotz-hodietako gaixotasunen prebentzioa eta bihotz-biriketako bizkortze-tailerren (BBB) bidezko prestakuntza ematea Arabako ikastetxeetan ikasleei, desfibriladorea erabiltzen ikas dezaten.

Mugarik Gabeko Bihotza Elkartearekin batera bultzatutako ekimena **DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 1. mailako ikasleei zuzenduta dago**, bizitzak salbatzeko teknika eraginkor horietan oinarrituko ezagutzak eskura ditzaten. Ekimen hau **OMEk babesten du**, ‘Kids Save Lives’ (haurrek biziak salbatzen dituzte) kanpainatik, eta gazteak prebentzio-irakaskuntzetan trebatzearen garrantzia azpimarratzen du. Fundazioak **10.000 euroko** ekarpena egin du.

73 tailer
980 pertsona
12 ikastetxe

Vital Open Science

Zientzia Arabako ikastetxe guztietara hurbiltzea, tailerren, esperimazioaren eta adituekiko elkarriketetan oinarritutako prestakuntza osatuaren bidez, zientzia eta teknologiako ezagutza hobetzeko programa honen xedea baita.

2021ean **Vital Open Science-ren bigarren edizioa** egin da, BLOK elkartearen eskutik antolatutako Vital Fundazioaren proiektua. **Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak** modu dibertigarri eta errazean murgildu dira zientziaren munduan. Programa honetarako **43.000 euro** bideratu ditu entitateak.

Prestakuntza Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleengan oinarritu da aurten, gero ikasitakoa ikasleei transmititzeko aukera izan dezaten. **Prestakuntza-saioak** egin dira, **online edo aurrez aurre, 90 minutuko iraupena duten tailerretan**.

Vital Fundazioak STEAM EUSKADI helburuak lortzen laguntzen du Arabako Lurralde Historikoan. Hezkuntza modalitate honek zientzia, teknologia, ingeniari-tza eta matematika biltzen ditu arteekin eta humanitateekin lotuta.



Lehen Hezkuntzako programan, tailerrek honako gai hauek jorratu dituzte: **‘Loreak sortzen. Botanika sortzailea’, ‘Fabrika ezazu smartphonerako mikroskopia bat, eta deskubritu ezazu Daphnia, ur-arkakusoa, barrutik eta kanpotik’, eta ‘Laser mikroskopia bat fabrikatu eta erabil ezazu’**. Bigarren Hezkuntzan, berriz, honako hau proposatu da: **‘Fabrika ezazu smartphonerako mikroskopia bat eta deskubritu zelula’, ‘Ikertu drogen eragina Daphnia-n’ eta ‘Fabrika ezazu eta bizitza eman zure esku robotikoari’**.

Formula Student Vitoria

Formula Student Vitoria UPV/EHUko Arabako campuseko Ingeniaritza Eskolako ikasleek osatzen dute, eta mundu osoko unibertsitateetako ikasleen arteko lehiaketa batean parte hartzen dute. FISITAK (Fédération Internationale des Sociétés d’Ingénieurs des Techniques de l’Automobile) antolatua, lehiaketa honek ingeniari-tzako bikaintasuna sustatzen du eta taldeetako kideek plaza bakarreko ibilgailu elektriko bat diseinatu, eraiki, garatu eta lehiatzeko aukera ematen du.



Vital Fundazioak Formula Student Vitoria lagundu du hasieratik, **ekintzailetzaren, prestakuntzaren eta enplegua sustatzearen** (sortzen dituen praktikekin eta esperientziarekin), **dibulgazioaren eta Vitoria-Gasteizko eta gure markaren sustapenaren ereduzko proiektua** delako. 2021ean 9.500 euro bideratu dira proiektu horretara.

Uztailean, eta hiru urteko lanaren ondoren, **UPV/EHUko Arabako Campuseko 39 unibertsitariok** diseinatu eta eraikitako Student Vitoria Formulako (FSV) monoplasa elektrikoa Arabako gizarteari aurkeztu zaio.

Egibide Lanbide Heziketa

Egibideko ikastetxeek, derrigorrezko bigarren hezkuntzaz eta derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokoaz gain, Lanbide Heziketa arautu eta ez-arautuko ikasketak ematen dizkiete ia 7.000 ikasleri urtero, eta hezkuntza-eskaintza oso zabala osatzen dute, gure lurraldeko gizarte- eta lan-errealitatearekin lotuta, Arabako industria-sarearen eskariei erantzunez.

Vital Fundazioak Arabako Lanbide Heziketarekin duen konpromisoa **Lanbide Heziketako Egibide Ikastetxeari** laguntzean gauzatzen da, **541.934 euroko** ekarpenarekin, besteak beste, ekipamenduetarako, irakasleen prestakuntzarako, beketarako eta hezkuntza indartzeko eta/edo laneratzeko eta lanbide-prestakuntzako programetarako laguntzen **Ezohiko Planari laguntzeko**.

Vital Fundazioak, gainera, % 20rekin hartzen du parte **Vitoria-Gasteizko Lanbide Heziketako Partzuergoaren** mantentzean (Eusko Jaurlaritzak, Vitoria-Gasteizko Udalak eta Vital Fundazioak osatutako erakundea). Horri esker, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Egibideren arteko hezkuntza-itunaren zuzkidura osatzen da, itunpeko ikastetxe den aldetik, hezkuntza-plazaren aldearen kosturik handiena ez egozteko ikasleek ordaintzen duten matrikulari.

Erakundearen lankidetzaren funtsezko beste alderdi bat honako hau da: **'EGIBIDE-Vital Fundazioa' Harrera Gela** izeneko proiektuari eustea. Ikasgela horrek oinarriko prestakuntza-tresnak ematen dizkie ikasle etorkinei, ikastetxeko hezkuntza-sistemara pixkanaka eta modu egokian egokituko direla bermatuz.

2021ean, Fundazioaren laguntzarekin, bi proiektu berri jarri dira abian: desgaitasuna duten pertsonei lan-ingurune inklusiboetan laguntzeko **jardunbide egokien gida bat diseinatzea**, eta **errealitate birtualeko eta errealitate areagotuko teknologien aplikazioa Lanbide Heziketan**.



HETEL Lanbide Heziketaren sustapena

HETEL irabazi-asmorik gabeko elkarte da, **Euskadiko Lanbide Heziketako 27 ikastetxe** biltzen dituena. 1987tik Euskal LH hobetzeko lanean ari dira, gure gazteen enplegarritasunean eta gure enpresen lehiakortasunean laguntzeko.

Vital Fundazioa aspaldidanik ari da HETELekin lankidetzan, **Araban Lanbide Heziketa sustatzeko** Egibideko eta Mendizabalako ikastetxeetan egiten den **kanpaina** sustatzeko sinatutako hitzarmenen bidez. 2021ean **12.000 euro** bideratu dira kanpaina honetara, webgunea bideo eta infografia berrieekin eguneratzeko, **IV. Avanza azoka** egiteko –prestakuntza-modalitate hori lurraldean ematen duten zentroak biltzen dituen gunea –, eta **Avanza Orienta jardunaldietarako**, orientatzaileei, tutoreei eta zuzendari zuzenduta, LHren balioa handitzeko eta profesional ospetsuekin elkartzeko.



'IKASEKITEN' ekiten ikastea

DBHko 4. mailako ikasleak balio eta gaitasun ekintzaileetan hezteko programa, gizarte-partaidetza, ikas-kuntza, pentsamendua, lana eta arazoaren ebazpena garatzen dituen metodologiarekin.



12 ikastetxe

5 tailer

350 arabar ikasle

Vital Fundazioak lankidetzan-hitzarmen bat sinatu du **BIC ARABA Berrikuntza Enpresen Zentroarekin, 15.400 eurokoa**, programa hori garatzeko. **Goiz bateko egonaldiak** dira **Arabako BICaren eta Arabako Parke Teknologikoaren instalazioetan**, DBHko 4. mailako ikasleek ekintzailetzaren errealitatea ezagut dezaten, **tailerren, hitzaldien eta sustatzaileekin ideiak trukatzu**. 2021eko tailerretan gai hauek jorratu dira: ekimena izatea, erabakiak hartzea, lankidetzan aritzea, sortzaileak izatea, negozio-idea bat dut, berri nahi dut, komunikatzea eta abar.

Beste hezkuntza-proiektu batzuk

9.000 euroko hitzarmena **Lacturale** enpresarekin, Arabako ikastetxeetan 20-21 ikasturtean **Lactogosari Osasungarri** buruzko tailerrak egiteko. 142 tailer egin dira, eta **20 ikastetxetako 2.900 ikaslek** hartu dute parte.

MATRIOSKA Errusiar Hizkuntzaren eta Kulturaren Arabako Haur Elkartearekin 1.000 euroko hitzarmena sinatu genuen Errusiako hizkuntza eta kultura eskolak jasotzen dituzten **4 haur talderi** laguntzeko.

+55 hezkuntza eta prestakuntza

Hezkuntza iraunkor eta inklusiboaren printzipioa defendatzen dugu, guztiontzat, adina edozein dela ere. Arautu gabeko baina gero eta garrantzi handiagoko prestakuntza eskaintzen dugu, 55 urtetik gorako pertsonen beharretara eta interesetara jotzen duena. Kolektibo hori gero eta ugariagoa da, eta aktibo mantendu eta gaitasun berriak eskuratu nahi ditu.

+55 prestakuntza-programak

Vital Fundazioak prestakuntza-lan handia egiten du eta asko laguntzen die 55 urtetik gorako pertsonari. Urtean zehar hainbat ikasgaiko jarduerak eskaintzen ditu (kultura, historia, ekonomia, teknologia berriak, etab.), eta irakasle espezializatuek ematen dituzte.

Irakaskuntzez gain, talde horretako kideen arteko komunikazioa eta gizarte-bizitza bultzatu nahi dira, taldeko jardueren bidez, hala nola abesbatza, kultura-irteerak edo eraztun berdean egiten diren mendi-ibiliak. 2021ean **87 jarduera desberdin egin dira, tailer, ikastaro eta kanpoko ekintzen artean, 18 programatakoak, guztiak aurrez aurrekoak**. Gainera, bi tailer online ere eman dira. + 55 programek harrera bikaina izan dute partaide izan dituzten **1.644 pertsonen** aldetik.



+55 AUREZ AURREKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMAK	IKASTAROAK	PERTSONAK
NAZIOARTEKO ALBISTEAK AZTERTZEKO KLUBA	3	66
KULTURA TXANGOAK	1	40
POP ABESBATZA	1	31
MUSIKA (MUSIKARA ETA OPERARA HURBILTZEKO)	4	63
PETANKA	1	30
ARABAKO PINTURA	1	20
IBILALDIAK HIRITIK	17	389
ESTIMULAZIO KOGNITIBOKO TAILERRAK	12	187

NUTRIZIO TAILERRA	3	50
TOPAKETA FILOSOFIKOAK	1	27
OSASUN TAILERRA	1	15
HIZKUNTZA IKASTAROAK	5	79
INFORMATIKA ETA TELEFONO MUGIKORRA	14	169
HISTORIA	8	262
FILOSOFIAREN HISTORIA	2	54
EKONOMIA ETA LEGERIA TAILERRA	1	10
HIRI-BARATZEKO TAILERRA	1	12
ARTEAREN HISTORIA	5	98
GUZTIRA	81	1.602

+55 PRESTAKUNTZA-PROGRAMAK ONLINE IKASTAROAK	IKASTAROAK	PERTSONAK
YOGA TAILERRA	2	33
NUTRIZIO TAILERRA	1	9
GUZTIRA	3	42

Arabako campuseko esperientziaren gelak

Esperientzia-gelek **etengabeko hezkuntza eta kalitatekoa** sustatu nahi dute bizitza osoan, ordaindutako lan-jarduerarik egiten ez duten **55 urtetik gorakoen artean**. Arabako campuseko **EHUko hainbat sailek** curriculum-programa bat prestatu dute, ikasleek pentsamenduaren bilakaeran, arbasoen historian edo gaien zergatian dituzten kezka intelektualak asetzeko.

Arabako Campusarekin lankidetzan hasi zenetik, duela hogeitau urte, Vital Fundazioak zuzenean hartu du Unibertsitatearekiko konpromiso hori, eta **8.000 euro** bideratu ditu **Giza Zientzietako Unibertsitate Titulua** bultzatzeko. Titulu hori eskuratu ahal izango dute 55 urtetik gorako pertsonak, lau ikasturte gainditu ondoren.

75 plazako sarrera-kupoa izan du, eta hogeitau urte hauetan 1.100 pertsonak lortu dute titulua.



Landa-eremua digitalizatzea

Teknologiarako sarbidean dagoen desberdintasuna murrizteko eta eguneroko kudeaketetan telefono mugikorriari etekina atera nahi dioten 55 urtetik gorako pertsoneri aukerak eman ahal izateko.

Vital Fundazioak, Kutxabankek, Arabako Foru Aldundiak eta SECOTek (Seniors Españoles para la Cooperación Técnica) tailer praktikoak antolatu dituzte lurraldeko **16 herritan**, Arabako toki entitateetako **55 urtetik gorako bizilagunek** beren gailu elektronikoen aplikazio erabilienetako eta erabilgarrienetako batzuk ezagutu ditzaten, hala nola Whatsapp, **Osakidetza** edo **Bizum**.

2021eko urritik abendura, **Arabako hamaika herri digitalizazio-tailerrak** eskaini dituzte, **2 orduko bi saiotan**. Programa honen helburua **lurraldeko eremu batzuen eta besteen artean dagoen eten digitalarekin amaitzea da**, eten hori areagotu egin daitekeelako adinaren arabera.



BeKAK

Bikaintasuneko prestakuntza eta talentua babesten ditugu. Horretarako, hainbat ikasgaitako beka eskaintzen ditugu, ikasle arabar konprometituek beren ikasketek eta ikerketek eragiten duten erantzukizun ekonomikoaren zama arindu dezaten.

Egibideko Berrikuntza Teknologikoko beka



Vital Fundazioak Egibiderekin duen hitzarmenaren barruan, **berrikuntza teknologikoko proiektuetarako 30.000 euroko 10 beka** funts bat sortzeko partida nabarmendu daiteke.

Azken bi ikasturteetan **Egibideko campusetako Goi Mailako Heziketa Zikloetako tituludunei** zuzenduta daude, eta **3.000 euroko zuzkidura du bakoitzak**.

Beka jaso duten arloak honako hauek izan dira:

- Kalitate-prozedurak laborategi kimikoan; ▪ Ingurumen-kudeaketako eta -sentsibilizazioko prozedurak; ▪ Ostalaritzako kudeaketa integrala; ▪ Ekipo informatikoa; ▪ Sistemaren integrazioa 4.0 industrian; ▪ Ekipo industria-lan mantentze-lanen kudeaketa; ▪ Fabrikazio- eta muntaia-proiektuen garapena; ▪ Komunikazioa, Administrazioa eta Kudeaketa LHko zentro batean; ▪ Irudi pertsonaleko areto batekin lotutako kudeaketa, inbentarioa eta jarduerak; ▪ Hezkuntza-laguntza eta ikasten laguntzeko programa Mediateketan.

Industria digitaleko gradu dualeko ikasleentzako beka

Deustuko Unibertsitatearen eta Egibideren arteko aliantza estrategikoak, lanbide-profil berria lortzeko eta **4.0 industriarako profesional arabarrak prestatzeko**, hasieratik izan du Vital Fundazioaren laguntza. Fundazioak **laguntza-programa garrantzitsua** eskaintzen du, gai diren eta baliabide ekonomiko mugatuak dituzten pertsonen laguntzeko.

Zerga-egoitza Araban edo Trebiñun duten eta 3 urteko antzintasuna duten ikasleei zuzenduta dago programa, **baldin eta lehen ikasturtean Industria Digitaleko gradu duala egiten badute**. Lehenengo mailako ikasleengan jartzen du arreta; izan ere, gradua duala denez, gainerako ikasturteetan, 2., 3. eta 4. mailetan, ikasleek ordaindutako egonaldiak izango dituzte enpresetan, eta, horrela, ikasketen zenbatekoaren % 75eraino finantzatu ahal izango dute.

Bekaren zenbatekoa familia-errentaren araberakoa da, eta **2.000 eta 3.000 euro artekoa da**. Eskatzaileek eskatutako irizpide akademikoak betetzen badituzte, mailegu itzulgarriak hartzeko aukera ere badago. 2021/22 ikasturtean, **10 ikasle** beka jaso dute, **28.000 euro**, eta **4.500 euroko 6 laguntza** eman dira, laneratu ondoren.

Erasmus Unibertsitateko beka

Gutxienez hiru urtetik hona Araban errolatuta dagoen edozein unibertsitateri eta Estatuko edozein unibertsitateko ikasle arabarrei zuzenduak, **Europar Batasuneko Erasmus graduko ikasleentzako** mugikortasun-programan **20/21 ikasturtean** onartuak izan badira. Beka hauetako bat lortu nahi duten unibertsitario gehienek EHUn egiten dituzte ikasketak.

Vital Fundazioak unibertsitate-prestakuntzaren aldeko apustua indartu du nazioartean, eta **beken zenbatekoak % 50eraino igo ditu** 2020arekin alderatuta.

Laguntza ekonomikoak **1.200 eurokoak** izango dira hautatuak ikasturte oso batean parte hartu behar badu, eta **600 eurokoak** gehienez ere, lau hilabetetik sei hilabetera bitarteko eskola-aldietan. Halaber, hilean **120 eurorainoko** beka espezifikoak daude lau hilabetetik beherako egonaldietarako. Deialdi horren barruan, egoera ekonomiko berezian dauden gazteen kasua hartzen da kontuan; izan ere, ohiko beka bikoizten dituen zenbateko batez balia daitezke, **2.400 eurora** iritsiz. Vital Fundazioak guztira **61 beka** eman ditu deialdi honetan, eta **49.560 euro** bideratu dira horietara.



Ingelesa hobetzeko beka

Unibertsitate-tituludunentzako eta goi-mailako lanbide-heziketako tituludunentzako beka hauen helburua ingelesaren ezagutza hobetzea da, **batez ere maila teknikoan eta komertzialean**.

Vital Fundazioak **20 beka** eskaini ditu **Idiomas Fundazioan ingeles teknikoa eta komertziala hobetzeko ikastaroa** egiteko. Beka bakoitza **650 eurokoa** izango da, egindako ziurtagiria edo proba egiaztatuz B1 maila gainditu zuten ikasleentzat. Guztira **10 ikaslek** jaso dituzte beka horiek, eta Vital Fundazioak **6.500 euro** ordaindu zituen horretarako.

Euskara ikasteko beka

Vital Fundazioak, Gasteizko **IKA**rekin lankidetzan, **15.000 euro** bideratu ditu **18 eta 25 urte bitarteko gazte arbarrei** eta egoera ekonomikoan dauden pertsoneri **euskara ikasteko beka** finantzatzeko.

Ekimen honen helburua da, **hizkuntzaren ezagutza eta erabilera sustatzeaz gain**, kolektibo horri **prestakuntza goi-mailakoagoa** eta osatuagoa lortzen laguntzea, **lan-merkatuan integratzeko** tresna bat eskaintzea eta **gizarteratze-prozesuan** laguntzea.

Gazteentzako beken zenbatekoa **265 eta 600 euro** bitartekoa da, ikasketa-orduen arabera; **gizarte bazterketa jasateko arriskuan** dauden pertsonentzako beken zenbatekoa **matrikularen zenbatekoaren % 100ekoa** izan daiteke (% 85 Vital Fundazioaren kontura eta % 15 IKA Gasteizen kontura). 2021-2022 ikasturtean, **32 gazteri eta gizarte bazterketa arriskuan egon diren 6 pertsonari** eman zaie beka.

Ekiten eta Sendotzen beka

Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganberak eta Vital Fundazioak lankidetzaz hitzarmena berri dute. Hitzarmen horrek enpresa-ekimenak sustatzea du helburu, **Ekiten eta Sendotzen** programen bidez.

Ganbera arduratzen da, **Enpresak Sortzeko Arloaren** bitartez, ekintzaileri laguntza osoa emateaz, enpresa-proiektu bat garatzeak dakarren erronkari arrakastaz aurre egin ahal izateko. Bestalde, **Vital Fundazioak 20 poltsa ekonomiko** eman dizkie hautatutako proiektuei.

Ekiten Programan, 10 enpresa-proiektu berriek 1.250na euro jaso dituzte, eta banakako aholkularitza-programarako sarbidea izan dute.

Sendotzen Programan, hautatutako 10 enpresa sortu berriek 1.250na euro jaso dituzte, eta banakako aholkularitza-programarako sarbidea izan dute.

Guztira **35.000 euro** bideratu ditu erakundeak: 15.000 euro programa bakoitzera eta 5.000 euro Merkataritza Ganberara.



Ekonomisten Euskal Elkargoan praktikak egiteko beka

Vital Fundazioak **14.000 euroko** ekarpena egin dio guztira Ekonomisten Euskal Elkargoari, **lizentziatu berri diren tituludunentzat sei hilabetez Arabako enpresetan praktikak egiteko 10 beka** finantzatzeko.

Praktikez gain, bekadunek prestakuntza-ikastaro bat jaso dute Arabako elkargoaren egoitzan bertan, 29 urtetik beherako ekonomialariei lan-merkatuan sartzea errazteko.

Enplegua eta laneratzea

Gizarte-erakundeen eta enpresen arteko zubi-lana egiten dugu, gizarte-erantzukizuna sustatuz, gazteentzako nahiz kalteberatasun-egoeran dauden pertsonentzako lan-aukera berriak sustatzen dituzten ekimenak babestuz eta bultzatuz. Gure lurraldeko enpresa eta saltokiei krisi-egoeretan laguntzen diegu.

EmpleoAraba

Arabako enpresetan dauden berehalako kontratazio-beharrak betetzeko Arabako industria-sektoreko enplegu-eskaintza eta -eskaria uztartzeko beharra izan zen 2016an, eta horri erantzuteko, SEA Arabako Enpresak eta Vital Fundazioak 'EmpleoAraba' jarri zuten abian.

2021ean, **abian jarri zenetik bost urte** bete direnean, bi erakundeek lankidetzeta-hitzarmena berritu dute, **mila pertsona baino gehiago lan-merkatuan sartzea** ahalbidetu duten proiektuak indartzeko.

Vital Fundazioak **EmpleoAraba** programarako **100.000 euroko** zuzkidurak egungo egoeraren eta eskariaren arabera beharrezkotzat jotzen diren ekimen guztiak hartzen ditu barne, eta dauden eskarietatik bereziki honako hauei erantzuten die:

- **Unibertsitateko edo Lanbide Heziketako titulazioa duten gazteentzako bekak: SEARi elkartutako enpresetan praktikak** egiteko eta lortutako kualifikazioaren eta enpresek benetan eskatzen dutenaren artean dagoen distantzia estaltzeko, **pertsona horiek lan-merkatuan integratu** daitezela laguntzeko. Tresna hori **% 90etik** gorako zifretara iristen da lan-merkatuan sartzean.
- **Back to Araba - Talent Forum: nazioarteko esperientzia duen talentu arabarra berreskuratu eta itzultzeko** programa. Bertan, bere garaian etxea utzi zuten gazteek Arabako enpresa nagusiek eskatzen dituzten lanpostuak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dute.
- **Gure Enpresak:** enpresa-mundua hezkuntza-sistemara hurbiltzeko proiektua. Proiektu horren bidez, **DBHko 4. mailako eta Batxilergoko ikasleei Arabako enpresen laneko prestakuntza-beharrak helarazten zaizkie**. Saio berean enpresari batek parte hartzen du, eta gazteei beren esperientziaren eta ibilbidearen ikuspegi hurbila ematen die.

empleoAraba

PROGRAMA DE FORMACIÓN EN PRÁCTICAS EN EMPRESAS 2022

Con un 90% de inserción laboral



Araba ekinean

Araba Ekinean Arabako ekintzaitzaren ataria da, eta ekintzaileentzako urte osoko laguntza, diru-laguntza, ekitaldi, prestakuntza eta albisteei buruzko informazioa eskaintzen du. Ekimen horrek, marka neutral baten pean, Arabako lurraldeko ekintzaile guztien eta ekintzaitzari laguntzeko erakundeen arteko lotura hobetzea eta erreferentzia izatea du helburu nagusi.

Gaur egun ekimenaren buru diren eta erdi bana finantzatzen duten erakunde antolatzaileak **Vitoria-Gasteizko Udala, Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza (SPRIren bidez), BIC Araba eta Vital Fundazioa** dira.

Vital Fundazioak **18.000 euroko** laguntza eman dio du Araba Ekinean proiektuari 2021, hainbat jarduera garatzeko:

- **Enpresa-azoka** eta hainbat dinamika ikastetxeekin (2021ean **7 ikastetxetako 40 proiektu** izan dira).
- **Ekin Day:** jarduera nagusia da, eta urteko jardunaldi bat da. Jardunaldi horretan **Arabako ekintzaitzari balioa ematen zaio** eta **'Araba Ekinean', 'Ekintzaile Handia' eta 'Zure ideia garrantzitsua** da' sariak banatzen dira. Urriaren 5ean egin da Europa Jauregian, **'Etorkizuna eraikitzen'** lelopean. **150 gonbidatu eta 64 proiektu aurkeztu** dira.
- **Ekin Breakfast: gaikako jardunaldiak** eta hainbat eragilerekin lankidetzan. 2021ean **9 saio egin dira eta 356 parte-hartzaile** izan dira.
- **Escape Room online:** ekintzaitzaren zentratuta dago, eta 40 minutu baino gutxiagoan parte-hartzaileek 10 erronka gainditu beharko dituzte.
- **Ate Irekien Jardunaldiak,** lurraldeko hazitegiak ezagutzeko, hau da, Arabako proiektu berriak sortzen ari diren espazioak.
- **B2B V. Topaketak:** ekintzaileen eta finantzaketa-erakundeen, aholkularien eta azeleratzaileen arteko banakako topaketak. 2021ean **31 bilera egin dira 9 parte-hartzaile eta 6 erakunderekin.**
- **Etorkizuneko elkarrizketak:** tokiko kazetari baten eta Arabako ekonomiaren funtsezko hainbat arlotan lan egiten duen ekintzaile baten arteko elkarrizketen bideoak
- **Startup-ak egiten hasteko tailerra: 3 saio egin dira, 18 hizlari eta 30 parte-hartzaile.**



AJEBASK

Arabako Enpresari Gazteen Elkarreak (Ajebask-Araba) enpresari gazteei laguntzeko eta gure lurraldean enplegua sor dezaketen proiektu berriak sortzen **laguntzeko ekintzak bultzatzea** du helburu. Vital Fundazioak helburu horiek babestu eta **33.750 euroko** lankidetzaren hitzarmena sinatu du, ekintzaitzako hainbat ekimen abian jartzeko.

2021ean, **18 jardunaldi** egin dira **autoenplegurako sentsibilizazioari buruz**, Lanbide Heziketako zentroetan; **2 jardunaldi, ekintzaitzari buruzko sentsibilizazioari eta informazioari buruz**, landa-garapeneko eragileentzat eta gizarte-langileentzat; **'Enpresak sendotzeko programa'**, enpresaburu gazteari laguntzeko zerbitzuen bidez,

kudeaketan, DBLO, marketinean, giza baliabideen eta beste-lakoetan; **enpresa coaching-aren jardunaldi 2**, enpresarien, ekintzaileen eta ekintzaileak diren ikasleen parte-hartzearekin; **'Esperientziatik ikastea'** ekintzaileentzako mentoring-programa, SECOTeko profesional erretiratuen eskutik; **gazte ekintzaileentzako laguntza-poltsak**, enpresaren bizitzako lehen bi urteetan abian jartzeko edo finkatzeko; **gizarte-bazterketako egoeran edo lan-esperientziarik gabe dauden gazteei laguntzea**, AJEBASKera lan bila hurbiltzen direnean.

ASLE

Vital Fundazioak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu du **ASLE EAEko Lan Sozietateen Enpresa Elkartearekin, lurraldeko langabeei eta ekintzaileei laguntzeko**, Lan Sozietate gisa enpresa-proiektu bat abian jarri edo bertan parte hartu nahi badute.

Erakundeak **30.000 euroko** ekarpena egin du 2021ean, **4 lan-sozietate berri eta ekintzaileen 13 kontsulta garatzeko zuzeneko laguntzako poltsetan; Ekintzaileen Foroan**, lau orduko sei saiotan, gai askotako **prestakuntza-pilulekin** eta **Networkingean** eta sare profesionalen sorreran eragin bereziarekin, **12 enpresa parte-hartzaileekin**; eta 'Zure enpresaren sorkuntza eta kudeaketa iraunkorra' **prestakuntza-ikastaroan**. Berrogei ordukoa izan zen eta **9 pertsonak** hartu zuten parte.



Micaela Portilla Tailer Eskola (Añanako Kuadrilla)

Errestaurazio arloan (igeltserotza, arotzgingtza eta hargintza) langabezia dauden gazteei lanbide bateko prestakuntza ematea sustatzen du. Basogintzako ezagutzak irakasten ditu, haien laneratzea errazten du eta Fontechako (Araba) Orgaz familiaren dorre-jauregia eta Gesaltza Añanako Gatz Harana birgaitzen laguntzen du.



Vital Fundazioak Añanako Kuadrillak sustatutako Micaela Portilla Eskola Prestakuntza eta Enplegu Zentroarekin duen hitzarmena berritu du **120.000 euroren** truke, araututako prestakuntzaren ordezko prestakuntza bat eskaintzeko, **16 eta 24 urte bitartekogazteei lan-merkatuansartzen laguntzeko**, baldin eta atzerritarren kasuan langabezia-txartela eta egoitza-baimena badute. **33 ikaslek amaitu dute** Tailer Eskolako **prestakuntza** eta **8 kontratatu** dituzte ikasketak amaitu eta bi hilabetera.

Laneratzea Aiarako Kuadrillan

2016az geroztik, Vital Fundazioak lankidetzeta-hitzarmen bat du **Aiarako Kuadrillarekin, 10.000 eurokoa**, hura osatzen duten udalerrietako bizilagunen enplegarritasuna handitzeko laguntza ekonomikoa emateko. 2021ean hainbat jarduera egin dira:

- Lana bilatzeko gaitasun pertsonalak eta profesionalak eskuratzeko **Okupatu programa. 10 pertsonak egin zuten.**
- **Elkarrizketa tailerra** Adecco Prestakuntzarekin, elkarrizketa pertsonal bati ekiteko orduan gaitasun pertsonalak hobetzeko. **13 parte-hartzaile.**
- **Ekintzailtza-jardunaldia** erakunde eta instituzioetako teknikariek, enprekin eta pertsona ekintzaileekin eta Zараobe BHIko ikasleekin. **44 pertsonak** hartu dute parte **aurrez aurre eta 29k online.**
- **Ostalaritzako eta merkataritzako online prestakuntza**, saltokien, ostalaritzaren eta zerbitzuetako profesionalen gaitasun digitalera bideratutako webinar-en bidez.

Laneratzea Iruña Okan

Azken hiru urteetan Iruña Okan **gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonekin gizarteratzeko eta laneratzeko programa bat** garatu da, **Iruña Okako Udalak, Sidálava Elkartek eta Vital Fundazioak** abian jarria.

Programa horri esker, hainbat enplegu-prestakuntza egin dira **Arabako espetxeko hirugarren graduko erregimeneko presoekin**, eta ondoren kontratatu dira Santa Katalinako Lorategi Botanikoan dauden landare-espezieen eta instalazioen mantentze-lanak egiteko.

Fundazioaren **12.000 euroko** ekarpenari esker, **5 pertsona** kontratatu dira 2021ean **Lorategi Botanikoaren ibilbideak hobetzeko** eta, horrela, kualifikazio profesionala ahalbidetzeko.

Bioeraikuntzako prestakuntza

Ozetan dagoen **Garaion kolektiboak** naturarekin, euskararen erabilerarekin eta sormenarekin lotutako jolas- eta hezkuntza-jardueren etxea kudeatzen du, lanbide tradizioaletatik abiatuta. 2017az geroztik, **langabetuentzako bioeraikuntzan birgaitzeko eta ekintzailtzari laguntzeko ikastaro praktiko bat** egiten dute, **Arabako emakumeei** lehentasuna emanez eta prestakuntzaren zati bat euskaraz emanez. Vital Fundazioak 2021ean parte hartu du prestakuntza horretan **10.000 euroekin, eta 11 pertsonak amaitu dute: 6 emakumek, 2 ez-binariok eta 3 gizonek.**



SARTU Araba

Pertsonen eta gizarte- eta lan-inguruneen artean beharrezko aldaketak sustatzea du helburu, gizarte-bazterkeriako egoerak murrizteko edo ezabatzeke. Gaitasun pertsonalen, profesionalen eta harreman-gaitasunen garapena sustatzen dute, enplegua lortzeko eta laneratzeko enpresak sustatzeko teknikei buruzko prestakuntza-ekintzen bidez.

Sartu Arabak **44.000 euro** jaso ditu Vital Fundaziotik, lankidetzahitzarmen baten bidez, honako programa hauei erantzuteko:

- **BATEKIN Borondatezko Gizarte Ekintza Sustatzeko Bulegoa**, Arabako irabazi asmorik gabeko erakundeentzako eta boluntarioentzako zerbitzu integrala eta doakoa. 2021ean **878 pertsonari** eman diete arreta, **92 sentsibilizazio-ekintza** egin dituzte, **95 elkarte** batekin izan dute laguntza **139 boluntariotza-proiektu** zabaltzeko.
- Gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuetan eta gizarte-informazioko beste eskaera batzuetan laguntzeko **Harrera Zerbitzua**. 2021ean **983 pertsonak** (584 gizon eta 399 emakume) **hartu zuten parte programa honetan**.
- **Gazte Bermearen Europako Proiektua**, lanik gabe dauden eta ikasten edo prestatzen ari ez diren gazteak lan-merkatuan modu iraunkorrean integratzeko, gizarte-bazterkeriako arriskuan daudenak barne. 2021ean **10 eskatzailek** lortu dute lana (6 gizon eta 4 emakume).

HAZIA 23

Programak 23 urtetik beherako langabeentzako neurriak bultzatu nahi ditu, baina, salbuespen gisa, prestakuntza edo lan-esperientzia esanguratsurik ez duten eta beste prestakuntza- eta enplegu-sistema batzuetan sartuta ez dauden 30 urtetik beherako pertsoneri arreta eman dakieke.


Vital Fundazioa Hazia 23 laneratze-programaren jarraipenerako beharrezko laguntzaileetako bat da. **Vitoria-Gasteizko Udalak** sustatuta, **ADSIS Fundazioaren**, **Egibide Fundazioaren** eta **Gasteizko Caritas Diocesanaren** lankidetzarekin.

Hazia 23an sartutako ekintzek fase guztiak hartzen dituzte: programa honen xede izan daitezkeen **profilak identifikatzea**, **enpresa batean kontratatzea**, **banakako ebaluazioa egitea**, **laneratzeko ibilbide pertsonala diseinatzea**, **tutoretza-lanak egitea**, hainbat **prestakuntza-modulu** egitea eta **bekek** lortzea. Prozesu hori guztia bat dator eskola-egutegiarekin, eta irailetik ekainera bitartean egiten da.

Hazia 23ren seigarren edizio honetarako hitzarmena sinatu da inplikaturako alderdi guztien artean, eta Vital Fundazioari **50.000 euroko** ekarpena dagokio.

Secretariado Gitano Fundazioaren Calí Programa

Kolektibo kalteberetako pertsonen gizarteratzea eta laneratzea hobetzea, bereziki emakume ijitoena, aukera-berdintasuna, genero-berdintasuna eta diskriminazio-mota guztien aurkako borroka sustatuz.



22 emakume Calí programan
125 erabiltzaile informatu
42 genero-indarkeria protokolo
10 emakume laneratzen

Vital Fundazioak **12.000 euroko** lankidetzaz-hitzarmena du **Emakume Ijitoen Aukera Berdintasuna eta Integrazio Soziolaborala** sustatzeko eta diskriminazio anizkoitzari arreta emateko **Calí programa** garatzeko.

Emakume ijitoaren segmentu espezifiko bat estaltzen du, **egoera oso ahulean** dauden emakumeak, zeinetara ez baitira iristen ez zerbitzu eta baliabide publikoak, ez beste erakunde batzuen ekimenak eta programak. Horrez gain, **genero-indarkeriaren biktimei arreta berezia** eskaintzen zaie.

Gureak

Edozein motatako desgaitasuna (psikikoa, sentsoriala, fisikoa eta gaixotasun mentala) duten pertsonak laneratzen lan egiten duen Enplegu Zentro Berezia.

Vital Fundazioarekin duten **17.000 euroko** hitzarmenari esker, **gizarteratze-ibilbideak** (orientazioa, gaikuntza eta laguntza) **jartzen dituzte abian** haientzat, eta desgaitasunari eta **enpleguari buruzko informazio- eta kontzientziazio-ekintzak garatzen dituzte Arabako enpresa-sarean**. Industria-sektorearekin, zerbitzuekin (ostalaritza, garbiketa, lorezaintza, gasolindegia eta vending) eta marketinarekin lan egiten dute, lan-prozesuak kontratazioaren ondoren ere mantentzen den lan-prestatzaile bat duten pertsonetara egokituz. 2021ean aurreko urteari dagokion beste **17.000 euroko** zenbatekoa ere ordaindu dugu.

AENKOMER

Arabako Merkataritza eta Zerbitzuen Federazioak merkataritza eta zerbitzuen sektorea ordezkatzeko Araban. Elkarrekin eta enpresen profesionalizazioa sustatzen du, haien lehiakortasuna indartzeko, proiektuak abian jarriz eta sektoreko elkarte eta enpresei zerbitzuak emanez.

2021ean, Vital Fundazioak **17.000 euroko** hitzarmena sinatu du AENKOMERekin, bi proiektu garatzeko: **• Tokiko Produktuaren Merkatua** abenduan, gastronomian oinarritua alderdi guztietan, zuzeneko salmenta-postuekin, dastatzeekin, sukaldariekin, ekoizleekin, sukaldaritza-tailerrekin eta abarrekin; eta **• Ekipamendu Pertsonalaren sektoreko merkataritza-ibilbideak**: 150 minutuko taldeko **aholkularitza**-saio txikiak, **merkataritza-establezimenduak ezagutzeko** eta aholkularitza tokian bertan jasotzeko.

Araba Market bonuak

Arabako landa-inguruneko negozioetarako plataforma digitalak online erakusleiho bat eskaintzen die lurraldeko enpresa txiki eta autonomo guztiei, beren ondasun eta zerbitzuen salmenta handitzeko aukera izan nahi baitute, www.arabamarket.eus webgunea.



Vital Fundazioak, **AFAko Ekonomiaren Garapen, Berrikuntza eta Erronka Demografikoko sailak eta kuadrillek deskontu-bonuen kanpaina bat** jarri dute abian, Araba Market-era atxikitako establezimendu jakin batzuetan **kontsumoa sustatzeko**. Bonu bakoitzak 12 euroko prezioa izan du eta 20 euroko balio osoa erosi duten pertsonentzat. Fundazioak **100.000 euroko** ekarpena egin dio kanpainari. **25.000 bonu saldu dira, 300.000 eurokoak**.

Enpleguaren arloko beste hitzarmen batzuk

Fundazioak, halaber, hitzarmenak sinatu ditu **FOARSE**, Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko Arabako Foroarekin, **Arabako enpresetan EGEaren ekintzak sustatzeko, hedatzeko eta ezartzen laguntzeko proiektua gauzatzeko**; eta **AFEVI**, Vitoria-Gasteizko Azoka eta Ikuskizunen Elkarterekin, 2021ean zehar Vitoria-Gasteizko **hainbat auzotan azokako atrakzioetarako haur-parkeak jartzea** ahalbidetzeko.



5 Ikerketa Arloa

MEMORIA 2021

Ikerketa-programak eta -proiektuak hobeto garatzen zuzenean laguntzen duten jarduerak babesten ditugu, horiek abian jartzen lagunduz eta ikertzaile, erakunde eta erakundeekin batera prozesuan inplikatur, Arabako Lurralde Historikoa eremu horretan erreferente bihurtuz.

3 ikerketa-programa 79.115 €



BIOARABA Osasun Ikerketa Institutua

Osasun-sistemaren programak eta politikak zientifikoki oinarritzen dituen ikerkuntza eta berrikuntza biomedikoko eta osasun-zientzietako zentroa, Arabako Lurralde Historikoan ikerketa translazionala (ezagutza zientifikoak praktika klinikora eramatea) sustatuz.

BIOARABA Euskadin dauden hiru Osasun Ikerketa Institutuetako bat da. 2017an sortu zen, **Osakidetzak, Berrikuntza eta Ikerketa Sanitarioko Euskal Fundazioak eta Euskal Herriko Unibertsitateak** sinatutako lankidetzaren arabera. Gaur egun, **369 ikertzailek** lan egiten dute elkarte horretan, **7 arlo desberdin hartzen dituzten 45 taldetan**.

Gaixotasun kardiobaskularrak, arnasketakoak eta metabolikoak tratatzeko tratamendurik onenak bilatzen dituzte, baita infekziosoak, hanturazkoak eta immunitate-sistemakoak tratatzeko ere. Farmako berrien garapenean eta minbiziaren aurkako diagnostikoaren eta terapien hobekuntzan, neurozientzien eta giza ugalketaren arloan eta osasunaren prebentzioan, sustapenean eta zaintzan lan egiten dute.

Vital Fundazioak eta BIOARABAK lankidetzaren hitzarmen bat ezarri zuten 2020an, **Garapenerako Ikerketa eta Berrikuntza Proiektuetarako deialdiaren** bidez, COVID-19ari buruzko 9 ikerketa-proiektu garatzeko.

2021ean, lankidetzak jarraitu du, eta bideratu ditu Vital Fundazioa-Bioarabaren II. deialdira, ikerketa eta berrikuntza sanitarioko 5 proiektu finantzatzeko:

1. Ariketa fisiko gainbegiratu, alde bakarrek hipofuntzio bestibular kronikoa duten pertsonekin lankidetzan aritzeko programa gisa: **Exervest azterketa**.
2. **Ahozko sakarosa % 24an** bi minutu lehenago **emateak duen eraginkortasunaren** konparazioa, **jaioberrian** prozedura mingarri bat gauzatzean egiten denaren aldean.
3. **Psikobioma aztertzen**: mikrobioma ikertzea antsietatean eta depresioan.
4. **Gazteek alkoholaren erabileraren** inguruan dituzten itzaropenak aldatzeko tresna baten eraginkortasuna.
5. **Alterazio kognitiboak elikadura-jokabidearen nahasmenduetan**, eta horiek hesi hematoentzefalikoarekin eta hanturarekin duten lotura.

Fundazioak BIOARABArekin duen konpromisoari esker, **70.000 euroko laguntza eman zaio BioHackLab Araba proiektuari** (ikerketa eta berrikuntza biomedikoko laborategia pazienteentzat). Osasun Ikerketako Institutuak proiektu hori aurkeztu du erakundearen laguntzen 2. deialdian.



Lankidetzak EHUarekin

Vital Fundazioaren ildo egituratzaileen artean ikerketa bultzatzea eta talentu gazteei laguntzea dago. Horregatik, **Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV/EHU)** lankidetzan dihardu hainbat proiektu garatzeko. 2021ean **41.000 euro** bideratu ziren **ikerketarekin, ekintzailetzarekin eta ezagutzaren hedapenarekin lotutako hainbat ekimenetara**.

Ikerketaren emaitzak gizarteari transferitzen laguntzen dugu, bi programaren bidez:

- **INIZIA Arabacampus programa**: UPV/EHUko Arabako Campuseko ekintzailetza-programa, BIC Arabarekin lankidetzan, kultura ekintzailea sustatzeko, ideia berritzaileak babesteko eta oinarri teknologikoko enpresak sortzeko, ikerketa gizarteari transferitzeko bitarteko gisa.

- **CBI@Basque Country University Araba Campus:** ikerketa Nuklearrerako Europako Erakundearen (CERN) IdeaSquare proiektu espezifikoan integratzen den programa. Proiektu horrek gizartearen eta komunitate zientifikoaren arteko sinergiak sustatzen ditu, eta **ikasle unibertsalen goi-mailako gaitasun zientifiko-teknologikoa du helburu.**

Lurraldeari eta Garapen Jasangarrirako Helburuei (GJH) lotutako ikerketa-proiektuen garapenean ere parte hartzen dugu: jasangarritasun-plan bat, garapen jasangarriko hainbat helburu jasoko dituen, unibertsitate-jarduerekin lotura handiena dutenak, bereziki ikerketa-jarduerekin.

Aurreko urteetan bezala, erabakigarria izan da Vital Fundazioak egin dion ekarpena: Europar Batasunak bultzatutako urteroko ekitaldia, herritarren artean kultura zientifikoa sustatzea eta gizartea sentsibilizatzea helburu duena, ikerketa zientifikoko eta berrikuntza teknologikoko jardueri dagokienez.



CIATCA Berrikuntza Irekirako eta Sormen Transferentziarako Zentroa

Proiektu aitzindaria Euskadin, **proiektu berritzaileak garatzeko** gizartearentzat interes handia duten hiru eremuren inguruan, hala nola **jasangarritasuna, sormena eta digitalizazioa**. 'Ideien laborategi hau' Arabako Foru Aldundiak, Vital Fundazioak eta **Conexiones Improbables-ek** sustatzen dute.

Arabako unibertsitate-campusean dago, **lurraldeko enpresa eta erakunde sozial, kultural, sortzaile eta akademikoen artean sinergiak eta lankidetzak sortzeko** helburuarekin, ideiak, lankidetzak, digitalizazioa eta industria adimenduna bultzatuz, Arabaren erronkei aurre egiteko. Fundazioak **6.600 euro** bideratu ditu 2021ean zentroa martxan jartzeko, 2022an errealitate izango dena.



An aerial photograph of a vast, green forested mountain range. The terrain is hilly and covered in dense trees. In the distance, a body of water is visible, with several wind turbines scattered across the horizon under a blue sky with white clouds. A large, semi-transparent number '6' is overlaid on the left side of the image, partially overlapping the forest. To the right of the '6', the text 'Ingurumen eta Ondare Arloa' is written in white, bold, sans-serif font.

6 Ingurumen eta Ondare Arloa

MEMORIA 2021

Ingurumenarekiko konpromisoaren erreferente izan nahi dugu Arabako Lurralde Historikoan, biodibertsitatearen aldeko ekintzak gidatzen ditugu 15. GJHren ildotik. Arabako kultura-ondarea, euskara eta gure tradizioak defendatzen ditugu. Tokiko azokak eta merkatuak egiteko laguntza ere ematen dugu.

635.435 €
38 proiektu eta lankidetzak



Ingurumen-programak

Ingurumen-aberastasuna babesteko, energia-baliabideen kudeaketan eta aurrezpenean hezteko edo kontsumo arduratsua sustatzeko.

GJH 15 garapena

Biodibertsitateari buruzko proiektu bat bultzatzen dugu, 15. helburuarekin bat datorrena: ‘Lurreko ekosistemen bizitza’, Arabako Lurralde Historikoan

Euskararako eta euskal kulturarako laguntza

Euskararen erabilera eta euskal tradizioak sustatzen dituzten kultura eragile, erakunde eta instituzioekin lankidetzan, programak eta proiektuak babesten ditugu.

Lurraldearen, azoken eta merkatuen sustapena

Arabako ondare historikoa berreskuratzeko proiektuei balioa ematen diegu, eta lehen sektorearekin nahiz bertako produktuekin konprometituta gaude, hortaz, azokak eta merkatuak erraztuz sustatzen ditugu

Ingurumen-programak

Ingurumena zaintzeko konpromisoari leial eusten diogu, 'Zure bizimoduarekin bat egiten dugu' lelopean. Kontsumo arduratsua, energia garbiak edo energia aurrezteko bezalako arloetan sentsibilizatzea eta jardutea helburu duten hainbat ekintza garatzen jarraitzen dugu. Naturarekin harremanetan dauden jardueren aldeko apustua egiten dugu.

ARABA Etxe Berdeak

Eguneroko ohiturek ingurumenean, gizartean eta ekonomian duten eraginaz kezkatuta dauden familiei zuzendutako hezkuntza-ekimena. Eguneroko ekintzetan aldaketak sustatzen ditu, ingurumenarekiko jarrrera arduratsua izateko, eta energia-baliabideak kudeatzen eta aurrezten irakasten du.

Vital Fundazioak Arabako lurralde osora helarazi du aurreko edizioetan Vitoria-Gasteizko familiekin egindako programa hau. 2021ean **119 etxerekin lan egin da, sei kuadrillatan banatuta, etxebizitza-tipologia desberdinekin** (pisuak eta familia bakarrekoak); etxebizitzaren tamaina eta berokuntza-sistemak. Horiei guztiei **lagundu zaie etxeko kudeaketa arduratsua goranzko aldaketa-prozesuan**: uraren eta energiaren etxeko kontsumoaren autokontrola sustatuz, neurri eta jokabide aurreztaileak sartuz eta erosketa etikoagoa eta ekologikoagoa egiten lagunduz.

ARABA Etxe Berdeak 2021-2023 aldirako hiru ediziotan antolatutako programa da. Lehenengo edizio honetan, parte hartu duten etxeek **beren etxeetan ur eta energia kopuru esanguratsua aurrezteko eta hondakinak behar bezala kudeatzeko** erronkari aurre egin diote. Fundazioak **65.000 euro** bideratu ditu **prestakuntza-tailerak, hitzaldiak eta txangoak egiteko, bai eta hainbat materialetarako ere**: aurrezki- eta eraginkortasun-kitak, informazioa, kontsumo-produktuak, etab.

Erakundeak, gainera, **Vitoria-Gasteiz Etxe Berdeak** programari ematen dion laguntzari eutsi dio, **CEArekin (Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumen Gaietarako Zentroa)** duen **20.000 euroko** lankidetzak-hitzarmenaren bidez.



Araba Herriz Herri

Web plataforma honetan Arabako eta Trebiñuko 500 herri zeharkatzen dituzten 71 ibilbide aurki daitezke. 4.000 kilometrotik gorako zikloturismo-ibilbideak eskaintzen ditu BTTn edo errepedean, mapa interaktibo, errutometro, eta herri eta ibilbide bakoitzaren banakako fitxak.

Vital Fundazioak **ingurumenarekin duen konpromisoaren** barruan, natura eta bertan bizi diren pertsonak biltzen dituena, Araba Herriz Herri ekimenak **gure lurraldeko herriak, txokoak eta jendea ezagutarazi** nahi ditu, **ingurunea errespetatuz**.

Araba Herriz Herri **<https://medioambiente.fundacionvital.eus>** webgunean dago, eta **71 ibilbide zerrendatuta eta mapa interaktibo batekin lagunduta** eskaintzen ditu. Mapa interaktibo horretan, txirrindularitza-motaren arabera kokatuta daude, eta horietako bakoitzaren banakako fitxak ikus daitezke.



Fitxak, era berean, ibilbidearen mapa interaktibo batez osatuta daude, altimetria, datu teknikoak eta track-ak deskargatzeko estekak dituena, baita pasatzen den herrien zerrenda ere, **bakoitzari buruzko informazio historiko eta kulturalarekin eta argazkiekin batera**.

Basoan murgiltzea

Japoniar jatorriko ongizate-praktika; hau da, elementu naturalak dauden leku batean egotea, haiekin gure zentzumenen bidez konektatzeko. Onurak ekartzen ditu osasun fisikoan, mentalean eta espiritualean.


Vital Fundazioak ekimen hau bultzatu du Arabako Lurralde Historikoan, ingurumenarekiko sentsibilizazioaren, errespetuaren eta gure ondare natural hurbilenaren zaintzaren alde egindako apustuaren barruan.

Baso-bainuek beste parte-hartzaile batzuekin partekatutako esperientzia pertsonala lortzeko aukera ematen dute, eta naturarekiko konexioa errazten duen **begirale/gidari bat du. 18 urtetik gorakoentzat da**, eta parte hartzeko ez da prestakuntza fisiko berezirik behar, bakarrik oinez ibiltzeko gai izatea edo bi orduz zutik egotea.



2021ean, irailetik urrira bitarteko lau asteburutan egin da **hasierako fasea. Bi ordu eta erdiko lau saio, bakoitza gaztelaniaz edo euskaraz, eta 23 lagunek parte hartu dute.**

Naturaren Arabako Institutua



Naturaren Arabako Institutuak lankidetzaz hitzarmena du Fundazioarekin, interesa duten herritarrei geologia, paleontologia, botanika edo zoologia bezalako diziplinak eskaintzeko. Horrela, natura-zientzien zaleen eskaria asetzen da.

2021ean, jasotako **4.000 euroak** hauek izan ziren: **natura ezagutzeko irteerak, botanikaren eta zoologiaren hastapen-ikastaroak, hitzaldiak eta Herbario Digitala**, inguratzen gaituen floraren aniztasuna zorrotz jasotzen duena.

Santa Katalinako Lorategi Botanikoa

Vital Fundazioak **6.000 euroko** laguntza ematen dio Santa Katalinako Lorategi Botanikoaren Lagunen Elkarteari **bisita antzeztuak, ikastetxeetako ikasleentzako sentsibilizazio- eta prestakuntza-proiektuak eta gaztelaniz eta euskaraz argitaratutako komikiaren edizioa** garatzeko.

Beste lankidetzaz batzuk

Bonsaien Arabako Elkartearekin, TANTAI 2021 Bonsaien VI. Lehiaketa/Erakusketa egiteko edo **San Viatorreko Scout Taldearekin**, argi berdeko proiektu baterako, eguzki-energiaraz argiztatuzeko instalazioa udako kanpalekuetako eremu komunitararako.

15. GJHren garapena

Nazio Batuen eta GJHen printzipioetako bat da tokian-tokian jardutea, mundu mailako helburuak lortzeko. Garapen Jasangarrien aldeko Arabako 2030 Aliantzaren barruan, Vital Fundazioak, Arabako Foru Aldundiarekin eta Murgiaiko BHIrekin batera, 'Lurreko ekosistemen bizitza' 15. GJHaren bultzadaren kokatutako ekimen baten buru da.

Herri bat, biodibertsitatearen aldeko ekintza bat

Vital Fundazioak 'Herri bat, biodibertsitatearen aldeko ekintza bat' proiektua bultzatu du, **partaidetzaren eta pertsonetikiko hurbiltasunaren** ikuspegitik. Ekimenak **belaunaldi-trukea sustatzen du, baita eremu bakoitzeko eragileen parte-hartze aktiboa ere** (bizilagunak, ikastetxeak, elkartek), **erabiltzen ez diren jarduerak eta lanbideak berreskuratzea, arriskuan dauden espezie autoktonoak babestea eta gizakiaren eraginez eraldatutako ekosistemak orekatzea.**

Gorbeialdeko kuadrilla

13 jarduera

13 udalerrri

700 partaide



Esperientzia pilotua Gorbeialdeko kuadrillan egin da 2021ean, eta jarduera handiak teknikoki gauzatzea baino gehiago, **gizarte zibilarekin lankidetzan ekintza txikiak egitea lortu nahi izan da, ingurumen-jasangarritasunari eta naturaren zaintzari buruzko ezagutzak hobetzeko eta kontzientziatzeko.**

Jardueren gaia askotarikoa izan da, lurzoruak berreskuratzetik hasi eta arrano beltz mediterranea bezalako superharraparien ezagutzaraino, **GJH 15en helburuekin bat etorritz:** ekosistemak iraunkorki kontserbatzea eta erabiltzea, desertifikazioaren aurka borrokatzea, biodibertsitatea degradatzea eta galtzea, eta espezie inbaditzaileen gaineko kontzientzia.

Urtean zehar honako ekintza hauek gauzatu dira: ▪ Legutio (**habiakaxak eta tximeleta-haztegia**), ▪ Manurga (**basoan murgiltzeko gunea sortzeko bide bat garbitzea**), ▪ Altube (**anfiboientzako babeslekuak sortzea**), ▪ Murgia (**basoko erlategiak sortzea Morkotxin**), ▪ Uzkiano (**baso-igel jauzkariarentzako putzua garbitzea**), ▪ Olabbarri (**habiakaxak eta hirigunean landatzea**), ▪ Luko (**laborantza ekologikoei eta lurzoruak berreskuratzeari buruzko hitzaldia**), ▪ Gillerna (**fruta-arbolen zaintzari eta prestakuntzari buruzko hitzaldia**), ▪ Zarate (**gaztainondoen berreskurapenari buruzko hitzaldia**), ▪ Murgiako Institutua (**mediterraneoko arrano beltzen bizi-zikloari buruzko hitzaldia**), ▪ Billoda (**Zadorra ibaiaren KBEan ibaiertzeko basoa birlandatzea**), ▪ Ametzaga (**aromatikoak landatzea polinizatzaileei mesede egiteko**); ▪ Langraiz Oka (**biodibertsitateari buruzko hitzaldiak Badaia Institutuan**).



Euskararako eta euskal kulturarako laguntza

Euskara irakasteko, erabiltzeko eta normalizatzeko praktikak eta ekintzak sustatu eta bultzatzen ditugu, baita euskal kulturako jarduerak eta topaketak berreskuratzeko, zabalatzeko eta aintzatesteko jarduerak ere, eragile eta erakundeekin lotuta.

Araba Euskaraz

Arabako ikastolen eta euskararen aldeko jaia 1981az geroztik egiten da, **dirua biltzeko eta Arabako lurralde historikoan horien erabilera sustatzeko.** Vital Fundazioak ia hasieratik laguntzen dio Araba Euskaraz-i, Arabako Ikastolen Federazioarekin lankidetzeta-hitzarmen bat sinatuz,



eta haren garapenean eta antolaketan inplikatur. Gure lurraldean euskara babestearekin lotutako lan-ildoaren barruko jarduera nagusietako bat da.

2021eko **ekainaren 20an** 41. edizioa ospatu da Laudion, **‘Zabal bideak’** lelopean, ospakizun giroan. Vital Fundazioak **18.800 euroko** laguntza eman du.

Denon Eskola

Era berean, beste hitzarmen bat dugu **Denon Eskolarekin**, hau da, **Arabako Eskola Publikoko ikasleen gurasoen elkarten federazioarekin**, bere jarduera-programa babesteko. Hartzaileak **10.000 familia elkartu eta 24.000 ikasle baino gehiago** dira. Fundaziotik jasotzen dituzten **5.000 euroak** hezkuntzari, hizkuntza-normalizazioari, balioetan oinarritutako hezkuntzari eta landa-eskolari buruzko informazio-bulegoak bideratu ditu, bestek beste.

GEU Gasteiz Euskaldun Elkarteak

Gazteen artean euskara sustatzeko helburuarekin, Vital Fundazioak eta **GEU Gasteiz Euskaldun Elkarteak 2.500 euroko** lankidetzahitzarmena sinatu dute euskararen dibulgaziora eta normalizaziora bideratutako komunikazio-euskarriak babesteko, hala nola Alea.eus, Euskaren agenda, Gasteizko mintzalaguna eta Familia Aisialdia. Horrez gain, **3.000 euro** bideratu dira 7 eta 11 urte bitarteko neska-mutilentzako **‘Kantari’ euskarazko kantuen festibala** bultzatzeko.



Arabako Dantzarien Biltzarra



Vital Fundazioaren beste helburuetako bat kultura-ondarea bizirik mantentzea da, eta, horregatik, **bertako folklorea kontserbatzen eta zabaltzen** laguntzen du. Gaur egun, Araba osoko eta Gasteizko hogeitasei taldek baino gehiagok osatzen dute Dantza Federazioa, bertako folklorea kontserbatu eta zabaltzeko lanean diharduten **800 dantzari eta 30 begirale** baino gehiagorekin. **2.100 eurorekin** lagundu ditugu aurten egindako jarduerak.

Arabako Bertsozale Elkarteak

Euskal tradizioen aldeko lankidetzaren artean Arabako Bertsolari Elkarteak aipatu behar da. elkarte horrekin **Binakako Bertsolari Txapelketa** egiteko hitzarmena sinatu dugu eta **3.000 euroko** laguntza eman diogu.

Lurraldearen, azoken eta merkatuen sustapena

Arabako ondarearen aberastasunak berreskuratzeari, defendatzeari eta zabaltzeari ere arreta berezia eskaintzen dio Vital Fundazioak, elkarte eta erakundeekin lankidetzan. Gainera, turismo-ibilbideak eta tokiko produktuak sustatzen ditu, eta azokak eta merkatuak antolatzen eta garatzeko materialak lagatzen ditu.

Gatz Haraneko espazioak berreskuratzea

Vital Fundazioak eta Añanako Gatz Harana Fundazioak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Gesaltza Añanako gatz-ekoizpenerako gune berriak berreskuratze prozesuarekin jarraitzeko.

2021ean, Vital Fundazioaren **45.000 euroak Añanako Gatz Haraneko kultura- eta ingurumen-paisaia berreskuratze eta kontserbatzeko** erabili ziren. Gatz ekoizpenerako larrainak berrezartzea, erortzeko arriskuan dauden egiturak desmuntatzea, larrainak garbitzea, biltegi-putzuak eta Gatz Haraneko beste elementu batzuk konpontzea dakarte berreskuratzeko lanek, hala nola hormak.

Lankidetzaz horrek **helburu bikoitza lortzen du: Arabako Lurralde Historikoko kultura- eta ingurumen-ondarea berreskuratzea eta enplegua sortzea**; izan ere, urte osoan zehar lau pertsona aritzen dira Gatz Haranean, eta bi pertsona gehiago maiatzetik abuztura bitartean gatzgintzako lanetan, nagusiki.

Gainera, Añanako Gatz Harana Fundazioak bertara joaten diren ikasleei fundazioaren logotipoa daramaten **gatz-poltsatxoak oparitzen** jarraitzen du, Vital Fundazioak munduko gatzaren paisaiarik garrantzitsuenetako baten ondarea berreskuratze ematen duen laguntza zabaltzeko asmoz. **85.000 lagunek baino gehiagok** bisitatzen dute urtero.



Bizitzarako pinturak

Ormandetxa Kultura Elkartea 2014an sortu zen **Forondako Antezana elizaren barnealdeko muralak sustatzeko**. **Xabier Egaña margolariaren** lana da eta 'Bizitzarako pinturak' dute izena. Obraren bilakaera eta garapena erakusteko ekintza kulturalak, pedagogikoak eta erakusketak sustatzea ere badu helburu aipatutako elkarteak.

Vital Fundazioak hasieratik lagundu du proiektu honetan. 2021ean, **9.000 euroekin** parte hartu dugu **kanpoko hormak egokitzeko** eta hezetasunak kentzeko.



Ondare irekia Estibalizko Santutegian



Erdi Aroko Araba proiektua garatzen du **Hagaburu Elkarateak** Vital Fundazioaren laguntzarekin. Ondare Irekia ekimena da, eta **Arabako ondareari irekiera digitala** eskaintzea eta ondare horren zabalkundea eta ezagutza erraztea du helburu. Monumentuaren oinean dagoen QR kode baten bidez, informazio historiko-artistiko eguneratua duen fitxa oso batera sartzen da, 360° argazkiak, bideoak, etab. dituzten baliabide digitalekin batera. 2021ean, Vital Fundazioak **8.900 euro** bideratu ditu Ondare Irekiaren edukiak eguneratzeko eta **Estibalizko Santutegia** suspertzeko, Vitoria-Gasteizetik 10 kilometro eskasera dagoen Euskal Herriko erromanikoaren harribitxi

‘Arkeologia berriak Araban’

Vital Fundazioaren **2.000 euroko** laguntzari esker, Arabako Arkeologia Institutuak **Arabako Lurralde Historikoko aztarnategietara bisita gidatuak** egiteko programa bat egin du 2021ean, ikertzaileek eta profesionalak zuzenduta eta jendeari irekita. **7 bisita** egin dira, eta **216 parte-hartzaile** bertaratu dira. **Beste 162 pertsona itxaron zerrendan** geratu dira.

Arabako Errioxako ardoaren ibilbidea elkarte

Arabako Errioxako ardoa gure lurraldeko produktu enblematikoetako bat da, eta Vital Fundazioak Arabako lurraldea sustatzeko egiten duen lanaren funtsezko zatia.

Helburu horren barruan dago **Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbidea Elkaratearekin** sinatutako **10.000 euroko** lankidetzaz hitzarmena, azaroaren 18an eta 19an Villa Lucía Espacio Gastronómico delakoan (Guardia) egindako **Enoturismoaren XI. Foroan** oinarritutako prestakuntza-jardueren programa bat garatzeko.

Prestakuntza **ardoaren eta turismoaren munduarekin uztartzeko** modu berri bat da, eta sektorearekin zerikusia duten erakunde eta enpresa guztiek lankidetzan jardun dute horretan. Proiektu kolektiboa da, eta **140 establezimendu baino gehiago** batu zaizkio, hala nola hainbat tipologiatako upategiak, museoak, ostatuak, jatetxeak, jarduera-enpresak eta enotekak, bisitariaren esperientzia hobetzeko helburuarekin.



‘Miniature pintxos congress’

Miniaturazko sukaldaritzarekin, tapekin eta pintxoekin urtero egiten den hitzorduak zortzigarren edizioa bete du 2021ean, publiko guztiarentzako esperientzia gastronomikoen programa anbizio handikoarekin eta pintxo sukaldari onenekin lehiaketak eginez. Jardunaldi gastronomiko hauek **urriaren 15etik 21era** egin dira Europa Biltzar Jauregian, Iradier Arenan eta Vitoria-Gasteizko jatetxeetan.

Vital Fundazioak **ia 400 biltzarkide eta hogeita hamar bat hizlari** biltzen dituen topaketa babestu du, nazioan eta nazioartean, **8.900 euroko** ekarpenarekin.

Vitoria-Gasteizko Gabonetako Merkatua



Abenduaren 23an, Vital Fundazioak **Gabonetako Merkatua** egin du, batez ere Euskadiko eta Nafarroako **64 produktu-posturekin**, eta **Arabako saltzaileek lehentasuna** izan dute beti. Bigarren urtez, merkatuak **‘ERRONKA GARBIA – Ingurumenaren aldetik jasangarria den ekitaldia’** ziurtagiria izan du, horrelako ekintza batek ingurumenean izan dezakeen eragin negatiboa minimizatuz. Ekitaldi osoa ingurumen-aztarna murrizten saiaturu diseinatu da. Gainera, saltzaileek **10.000 poltsa konpostagarri** eman dituzte salmentekin, aldez aurretik Vital Fundazioak haiei banatuak.

Beste zenbait lankidetzak

Vital Fundazioak lankidetzak-hitzarmenak ditu **udalekin, kuadrillekin** eta tokiko beste erakunde batzuekin, azoken, nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren eta lurraldearen sustapeneko jardueren antolaketa logistikoa laguntzeko. **Arabako lehen sektorearekin zerikusia duten azokei laguntzen die**, eta horretarako, hesiak, puzgarriak, standak, megafonia, karpak eta abar lagatzen dizkie.

Aipatzekoak dira, halaber, **Arabako Slow Food** elkartearekin sinatutako hitzarmena, azalera txikiak baratzegintza intentsiboari buruzko III. Jardunaldiak egiteko; **Boilur Arabako Gastronomia Elkartearen Federazioarekin** sinatutakoa, pandemiak iraun zuen bitartean elkarteak izan zituen gastuei aurre egiteko; **Oiongo Prudentzio Egusentia kultura- eta musika-elkartearekin** sinatutakoa, ‘Oiongo tradizioak eta apunte historikoak’ programa garatzeko; **Euskal Herriko artisautza tradizionala sustatzeko ARBASO elkartearekin** sinatutakoa, Artisaujazz Azoka egiteko; **ALOYA ALAIA elkarte sozio-kulturalarekin** sinatutakoa, ‘Zanbranaren historia ikasten: interpretazio-mahaia’ programa garatzeko; **Ipar Arriagako Auzo Elkartearekin** sinatutakoa, Napoleonen merkatua abian jartzeko, besteak beste.

FUNDACIÓN

Vital

FUNDAZIOA



Kirol Arloa

MEMORIA 2021

Kirolak pertsonen osasun fisikoan eta mentalean dituen onurak defendatzen ditugu. Herritarren esparru eta estamentu guztietan kirola egitea sustatzen duten klub, elkarte eta erakundeekin elkarlanean aritzen gara, arreta berezia jarriz ikasleei, emakumeei eta kirol inklusiboari, proba herrikoiak ahaztu gabe.

585.100 €

**54 hitzarmen kirol klub eta elkarteekin
proiektu propio 1**



Emakumezkoen kirola

Nesken eta mutilen artean kirol-jarduerarako sarbidean eta mantentzean aukeraberdintasuna defendatzen dugu. 'Bai, nahi dut' programa bultzatu dugu Arabako emakumezkoen kirolean.

Oinarrizko kirola

Arabako ikasleen arteko kirol-prestakuntza babesten dugu, modalitate desberdinetako ezagutzak eskuratzeko, autodiziplinan eta gizarte-balioetan laguntzeko.

Kirol inklusiboa

Desgaitasuna duten edo ez duten pertsonen artean kirola eta kirol-lehiaketa bultzatzen duten programak babesten ditugu, garapen pertsonala, hobetzeko grina, integrazioa, leialtasuna, lankidetzeta eta abar lortzeko.

Kirol herrikoia

Arabako probak eta lehiaketak antolatzen laguntzen dugu, haien parte-hartzea sustatuz eta hainbat agertokitan garatuz, gure lurraldeari balioa emanez.

Emakumezkoen Kirola Araban 2018-2022

Vital Fundazioak **Emakumezkoen Kirola Araban 2018-2022 Programa garatzen** du, bost urteko indarraldiarekin, kirol arloan nesken eta mutilen arteko berdintasuna bultzatzeko. Edozein diziplinatan emakumeen praktika sustatzeaz gain, emakumeak kirol-klubetako estamentu guztietan parte hartzera bultzatu nahi dira, jokalaria, zuzendari, entrenatzaile edo prestatzaile fisiko.

2021:

108 MASTERKLASE

18 ikastetxe

2.502 ikasle partaide

2 UDAKO CAMPUS

96 neska partaide

6 kirol-teknifikazio BEKA



Programa Araban kirola egiten duten edo bertan bizi diren 9 eta 16 urte bitarteko neskei zuzendutako lau proiektutan banatuta dago. Hainbat alderdi hartzen dituzte: eskola-kirola, kaleko ekintzak, gizarte-kontzientziarioa eta prestakuntza.

Jarduera arrakastatsuenetako bat **ikastetxeetan egiten diren 'Masterklase' edo Eskola Magistralak** dira. Arabako hainbat kirolari eskatu zuten lurraldeko ikastetxeetara hurbildu dira, eliteko kirolaren arloan dituzten historiak eta esperientziak ezagutzera emateko. Klaseek alde teorikoa eta praktikoa dute. Ikasturte honetan **taldeko kirolak**, eskubaloia edo hockeya nahiz **banakako kirolak** (triatloia edo badmintona) sustatzea erabaki da. Gainera, masterklaseak eman dira hainbat diziplinatan: errugbia, boleibola, atletismoa, esgrima, palaz egindako euskal pilota, karatea eta sokatira.

Udako bi Campusek harrera bikaina izan dute. **Agurainen** izan da **futbol campusa** eta **Kanpezun kirol anitzeko campusa** (errugbia, atletismoa, karatea eta eskubaloia). Bietan **96 neskek** hartu dute parte.

Programaren beste ekintzetako bat **kirol-teknifikazioko beken** eskaintza da, nesken presentzia indartzeko beste diziplina batzuetan eta egitura teknikoetan, zuzendaritzakoetan edo epaile lanetan. Beka horien bidez, **edozein kirolerako ikastaro ofizialen zenbatekoaren % 50 finantzatzeko zaie entrenatzaile, epaile edota kirol-zuzendari titulua lortu nahi duten kirolari arabarrei**. Horretarako, kirol federazio guztiei parte hartzeko deia egiten zaie. Ikasturte honetan **14 beka** eman dira.

Programa hasi zenetik hainbat ekintza burutu dira, besteak beste, futbol eta saskibaloitxo txapelketak, kirolariekin egindako saioak lurraldeko ikastetxeetan edo teknifikazio bekek edo udako campusak, besteak beste.

2018-1021 epealdia

215 MASTERKLASE: 53 ikastetxe, 5.860 ikasle

6 UDAKO CAMPUS: 353 neska partaide

14 kirol-teknifikazio BEKA

ARBITRAJEKO PRESTAKUNTZA: 167 neska

EPAILEEN ETA ENTRENATZAILEEN JARDUNALDIAK: 97 emakume partaide



Oinarrizko kirola

Oinarrizko kirola edo prestakuntza-kirola bultzatzearen aldeko apustua egiten dugu, diziplina jakin batean jolasten baino askoz gehiago ikasten delako. Talde-lana, berdintasuna, lankidetzeta, lidergoa, diziplina, konpromisoa, hobetzeko grina, lorpena, arrakasta eta abar bezalako balioak adin txikienetan ikasten dira, eta gurasoak, entrenatzaileak, publikoak, organizazioak eta erakundeak inplikatzeko dituen zeregina da.

Vital Fundazioak lankidetzeta-hitzarmenak ditu **30 kirol-klub, -federazio eta -elkarte baino gehiagorekin**, diziplina guztien sustapenean eta prestakuntzan, jarduera fisikoaren eta ohitura osasungarrien sustapenean, torneoen, txapelketen, campusen antolaketan eta abarretan egiten duten lana babesteko. Halaber, ekipazioen hornidura erraztuz parte hartzen du, eta kirol-ekitaldiak eta -probak egiteko hesiak, arkuak eta bestelako materialak eta osagarriak eskaintzen ditu. **Gazteen artean jarduera fisikoa sustatzeko sinatutako hitzarmenen** artean, honako hauek daude, besteak beste:

Saskibaloia: **Araski Emakumezkoen Saskibaloia Kluba: 'Nesken Denbora'** programa, probintziako emakumezkoen saskibaloia egonkortasun handiagoa ematen saiatzen dena, **11.000 euroekin**; **Saskibaloiko Arabako Federazioa:** Teknikazio Eskolarako eta probintziako selekzioekin lankidetzan aritzeko beheragoko mailetan, **5.000 euro**, eta Araberri eta Goratu **saskibaloia klubak**.



Futbola: **Futboleko Arabako Federazioa:** **8.000 euro** prestakuntzarako eta erregelamenduetarako, Epaileen Elkargoa eta emakumezkoen Liga eta **futbol klubak** (Aranbizkarra, Arlote Zanbrana, San Ignacio, Agurain, Zaramaga).

Txirrindularitza: **Txirrindularitzako Arabako Federazioa** eta **txirrindularitza klubak** (Artziniega, Arabarrak, Laudioarra eta Zuiarra).

Gimnasia: **Gimnasiako Arabako Federazioa** eta **gimnasia klubak** (Arabatxo, Ceted, Oskitxo eta Suprarítmica).

Atletismoa: **Atletismoko Arabako Federazioa** eta **atletismo klubak** (la Blanca, el Prado, Laudio).

Euskal pilota: **Euskal Pilotako Arabako Elkartea.** Horrekin **22.000 euroko** hitzarmena ezarri da oinarrizko kirola garatzeko, emakume pilotariaren prestakuntza, kirol federatua eta pilota gunearen mantenimendurako, baita Zaramaga eta Zidorra **pilota elkarrekin** ere.

Herri-kirolak: **Herri Kirolak Federazioa** eskola-ingurunean eta Vitoria-Gasteizko jaietan herri-kirolak sustatzen lan egiten du, eta Arabako txapelketak egiten ditu Aizkora, Trontza edo Harri jasotzea modalitateetan.

Horrez gain, honako hauek babesten ditugu: Judizmendi Igeriketa Kluba, Eharialdea Emakumezkoen Eskubaloi Kluba, Judoaren Arabako Federazioa, Lautada Waterpolo Kluba, San Prudentzio Pedagogia Ikastetxea, Gasteiz Mahaiko Tennis Kluba, Peña Vitoriana, Gasteiz Mendi Kluba, Manuel Iradier Txangolari Elkartea edo Harrikada Curling kluba, lurraldeko beste talde batzuen artean.

Udal Kirol Zerbitzua

Fundazioak Vitoria-Gasteizko Udalarekin du lankidetzeta hori **kirol-jarduerak abian jartzeko**, kirol-jarduera horiek helburu komunak lortu ahal izateko, batez ere oinarrizko kirolaren eta, oro har, biztanleriaren barruan, eta jarduera horretarako **beharrezkoak diren instalazioak mantentzeko**. Helburu horretarako **40.000 euro** bideratuko ditu erakundeak.

Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Euskadiko VII. Kongresua

Kirolean eta jarduera fisikoan funtsezkoak diren 200 profesional eta eragile inguruk kirol-ekosistemaren etorkizunari buruz eztabaidatu dute abenduaren 2an eta 3an Europa Jauregian, kirolak giza garapenaren, garapen sozialaren eta ekonomikoaren eragile gisa duen gaitasun osoa kontuan hartuta.



Kirol inklusiboa

Vital Fundazioa kirol inklusiboan berdintasun-balioak sustatzen saiatzen da, desgaitasuna duten eta desgaitasunik ez duten pertsonen elkarrekin lan egin dezaten bultzatzeko eta beren ekarpena egiteko, kirola eta bizitza pixkanaka espazio bakar eta inklusibo bihurtzeko.

Zuzenak Fundazioa

2000. urteaz geroztik, Vital Fundazioak **Zuzenak Fundazioari** zuzeneko laguntza ematen dio, **Zuzenak- Vital Fundazioa gorpil-aulkiko saskibaloia taldeari lagunduz**. Taldea maila nazional gorenean lehiatzen da, Ohorezko Mailan. Nahiz eta talde hori proiektuaren zatirik ikusgarriena izan bere kirol arrakastengatik, gainontzeko diziplinek ere, hala nola aulkiko errugbiak, txirrindularitzak, parabadmintonak, motokrosak, tiro olinpikoak, parazaldizkoak eta atletismoak **40.000 euroko** ekarpenaren onuradun dira.



Hitzarmen horri esker, Zuzenak Fundazioak sentsibilizazio-kanpainak egin ditzake, baita **Kirol Egokituko Eskola** -dibertsitate funtzionalaren errealitatea haurtzarotik ezagutarazteko- eta **Campus inklusiboa** ere, 8 eta 20 urte bitarteko gazteentzat, dibertsitate funtzionala izan edo ez.

Gaztedi Rugby Taldea

Errugbi Eskola eta **Errugbi talde inklusiboa** dituen kirol-kluba da. Vital Fundazioak **2.000 euroko** lankidetzahitzarmen baten bidez babesten du kirola egitea sustatzeko lan hori, Down sindromea duten pertsonen gaitasunak hobetzeko eta gizartean sartzeko modua baita.

2021ean, **‘Errugbiaren historia, Michael Jonathan Foxek kontatua’** ipuin bildumaren lehenengo liburukia kaleratu dute. Irakurketaren aldeko apustua da, Gaztediko gazteen hezkuntzan elementu garrantzitsua baita. Argitalpen horien bidez, herritarren artean errugbia zabaldu nahi da, irakurleei baloi obalatuaren kirolari buruzko ikuspegi kritikoa irakatsi, eta entrenatzaileei eta hezitzaileei beren irakaskuntzalaneari inspiratu. Vital Fundazioak proiektu honetan lagundu du.



ASPACE Araba Kirol Kluba

Vital Fundazioak **ASPACE-ARABA Garun-paralisia eta antzeko alterazioen elkartearekin** sinatutako hitzarmenaren barruan, **5.000 euro** bideratu dira Kirol Klubaren jarduerak garatzeko: **BOCCIA** (petankaren antzekoa), **SLALOM** (gurpil-aulkian ahalik eta denbora laburrenean hainbat oztopoz osatutako zirkuitua egitea, hutsegite-kopuru txikiena eginez) eta **IGERIKETA egokitua**. Hiru modalitateetako lehiatzen dira Euskal Ligan.



Fundazioaren ekarpenak kanpoko laguntzak mantentzen ere laguntzen du (entrenatzaileak eta joko-laguntzaileak), baita fisioterapia-saioterako ere.

Mendi Solidarioak Elkartea



Mendiko kirol solidarioa sustatzen du **dibertsitate funtzionala duten pertsonen inklusioagatik, 'Ametsak bete'** programaren bidez. Horretarako, pertsona itsuen eta ikusmen gutxiko pertsonen mendiko gidaritzan trebatutako pertsonak dituzte, baita Joëlette aulkiaren maneian eta gidaritzan trebatutakoak ere. Aulki hori berezia da mugikortasun urriko pertsonak mendiko edozein lurretatik mugitzeko.

Gainera, prestakuntza-ikastaroak egiten dituzte boluntario berrientzat, amets horiek betetzeko. Vital Fundazioak **3.500 euroko** lankidetzaz hitzarmena du sinatuta elkartearekin eta horri eutsi dio.

Boxeoko Arabako Federazioa

Boxeo Eskola bat du. Bertan, eskola-boxeoa egiten da eta gizarte-zerbitzuekin elkarlanean aritzen da **ingurune marjinaletakoak** eta egokitzeko zailtasunak dituzten **gazteak integratzeko, kirolaren bidez. Emakumeak genero-berdintasunari eta autodefentsari buruz sentsibilizatzeko ekintzak** ere garatzen ditu. 2021ean, Vital Fundazioak **3.000 euro** bideratu ditu programa hau garatzeko kirol-materialak erostera.

Parabadmintonaren II. Txapelketa Nazionala

Martxoan egin zen, Vitoria-Gasteizko Zabalzana gizarte-etxean. **Just Bádminton klub inklusiboaren** eta Espainiako federazioaren arteko lankidetzari esker, lehiaketa bat antolatu da eta berrikuntza ekarri du, **badminton inklusiboaren txapelketa bat**. Vital Fundazioa izan da babesle nagusia, Arabako hiriburuan burutu den Badmintongo Senior Txapelketa Nazionalen bezala.

Proba herrikoiak

Vital Fundazioak kirol-probak gure lurraldera hurbiltzen dituzten erakundeekin lankidetzan dihardu, arabarren zaletasuna eta parte-hartzea sustatuz, bai protagonista, bai ikusle.

Hiru Haundiak

Euskal Herrian erreferente den iraupen luzeko mendi lasterketa da, Manuel Iradier Txangolari Elkarteak antolatua eta Vital Fundazioaren laguntza nagusia du. Ultra iraupeneko proba honek euskal mendietako hiru tontor esanguratsuenak igotzeko erronka planteatzen du: Gorbeia (Araba) 1.481m, Anboto (Bizkaia) 1.331m eta Aizkorri (Gipuzkoa) 1.523m, bakoitza parke natural batean kokatua.



Ehun kilometroko ibilbidea, 24 orduko gehienezko denboran, eta pilotutako hamar mila metrotik gorako desnibela. Zozketa jendetsu batean dortsala eskuratzea lortzen duten **1.700 parte-hartzaile** biltzen ditu. Vital Fundazioak **15.000 euro** bideratu ditu bere garapenerako.

Gasteizko Mendien Lasterketa

Mendiko ohiko lehiaketa, **Manuel Iradier Txangolari Elkarteak** antolatua, 62 kilometro luze eta 5.816 metroko desnibela duena, bertan behera geratu da koronabirusaren pandemia dela-eta. 2021ean **banakako mendi proba bihurtu da, 'Mendi-proba irekia'**, eta aplikazio teknologiko bat erabiliz ibilbide bera egiteko aukera izan da, Vital Fundazioak eman duen **6.500 euroko** laguntzari esker.



Parte-hartzaile bakoitzak 3 modalitate egiteko aukera izan du ekainaren 11tik 27ra bitartean: jardunaldi bakarra, etapa bitan edo hiru etapatan.

2021eko Maratoi Erdia

Vitoria-Gasteizko kaleak izan dira Euskadiko distantziaren dekanoa den proba honen 43. edizioaren agertokia, **Arabako Atletismo Federazioak** eta Vital Fundazioak antolatua. Oraingoan, pandemiaren ondorioz, **2.500 parte-hartzaile** besterik ez dira izan, eta 2019an egin zen azken edizioan, berriz, 3.100. Proba, gainera, Euskadiko eta Arabako txapelketa izan da.



Vitoria-Gasteiz Duatloia

Guztira **250 kirolari federatuk eta 100 herrikoi inguruk** hartu dute parte **Vitoria-Gasteizko lehenengo Duatloian**, urriaren 10ean. 5 kilometroko ibilbidea egin dute korrika, 20 kilometroko segmentua bizikletaz eta beste 2,5 kilometro korrika. Ekitaldiak ikusmin handia sortu du, eta **La Blanca Atletismo Klubak** eta Vital Fundazioak antolatu dute.



Bastida Vital Trail

Bastida Vital Trail lasterketaren lehenengo edizioa uztailaren 3an egin zen. **Irteera eta helmuga Bastidan** izan zuen eta bi modalitatetan egin zen: bata helduentzat eta bestea **Bastida Vital Trail Txikia**, 4 eta 14 urte bitarteko haurrentzat. 25 km inguruko luzera du ibilbideak eta 1.200 metroko desnibel metatua.

Vital Fundazioaren bultzadari esker, lasterketak **izaera solidarioa** izan du eta parte-hartzaileek eskola-materiala (pinturak, boligrafoak, koadernoak, etab.) eman dute dohaintzan. Material hori Berakah-ri eman zaio, gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonen alde lan egiten duen erakundeari.



Laudioko XXXII. Nazioarteko Ziklo-krosak

Laudion egiten da Laudioako Txirrindulari Elkarteak antolatutako proba tradizional hau. Aurten bere errekorra hautsi du, **700 txirrindularik eman baitute izena**. Azaroan egin da 2.750 metroko zirkuitu batean, C1 lizentziarekin, nazioarte mailan altuena, Espainiako Koparako baliagarria izateaz gain. Fundazioak **6.000 euro** bideratu ditu Laudioako Ellakuriko zelaietan egiten den eta nazioarteko partaidetza handia hartzen duen proba honetara.



Beste proba herrikoi batzuk

Vital Fundazioak beste hainbat probatarako laguntza ere ematen du, hala nola Laudioako Haraneko XLI. Krossa, La Karpy Martxa Zikloturista, Andre Maria Zuria Badminton VI. Txapelketa, Ibilaldi Nordikoaren Espainiako Kopa edo Emakumezkoen Tenisaren II. World Tour.




8 Vital Eguna

MEMORIA 2021

Festa honen hirugarren edizioa burutu du Vital Fundazioak, gure lurraldeko kaleei erritmoa itzultzeko asmoari jarraikiz, zuzeneko musika eta adin guztietarako kirol-proben eskutik, jendearentzat irekiak eta doakoak. ‘Zurekin bat’ bere leloari leial, erakundeak asteburu bat eman du herritarrekin, elkarteekin eta lankide dituen taldeekin harremanak estutzen.

202.105 €
7 musika-kontzertu
3 kirol-ekitaldi



Vital Eguna 2021 **urriaren 22an, ostirala**, 19:30ean hasi da Vitoria-Gasteizko Zabalzana auzoan, **‘Kantu Kolore’** taldeko musikarien emanaldiaren eskutik, haur txikienek gozatzeko proposamen didaktiko musikala.

Ostiral gauean, **‘Gaueko martxa solidarioa’** egin da. **7 kilometro** inguruko ibilbidea izan du, **Olarizuko parkean zehar**, eta **600 pertsonak** hartu dute parte. Partaideei kopetako argia eman zaie martxarako. Partaide bakoitzeko **dohaintza bat** egin du Vital Fundazioak **MendiSolidarioak elkartearen eta Gaztedi Klubaren** alde.



Musika izan da protagonista **larunbat goizean**, hilak 23, 12:30ean, Foruen plazan, **'Simbatik Kiarara'** Lehoi Erregea zinema klasikoaren omenezko kontzertuaren eskutik. Publikoarekiko elkarrekintzak, zuzeneko ahots ikusgarriek, eszenaratze handiak eta koreografia erakargarriek, oso aurkezpen dibertigarria izateaz gain, familia osoarentzako esperientzia ahaztezina ziurtatu dute. Gainera, **'Kantu Kolore'** Amurriora (12:30ean) eta Guardiara (18:30ean) joan da, eta jaieguna lurraldeko beste herri batzuetara eraman du.

Arratsaldean, 17:00etatik aurrera, Arabako **Parke Teknologikoan** (Miñao) **Enpresen Lasterketa** egin da, gure inguruan arrakasta gehien izan duen kirol-hitzorduetako bat, jarrera osasungarria sustatzeko, 6,7 kilometroko zirkuitu batean kirol-espirtua eta lan-espirtua uztartuz. **59 enpresatako ordezkari izan diren 500dik gora korrikalarik** hartu dute parte **174 taldetan**.



Larunbateko azken orduan, Vitoria-Gasteizko Foruen Plazan eman du **kaleko lehengo kontzertu handia Zetak** euskarazko pop elektronikoko taldeak. Bere emanaldiaren ondoren, **'Don Patricio'** gaztelaniazko trap-aren figura handienetako baten ordua iritsi da. Foruen plaza **dantza-pista** ere izan da, **Dj Canynen saioen eskutik**.



Igandean, hilak 24, **familia-kirolaren txanda** izan da **Agurainen**. 11:00etatik aurrera hainbat kirol modalitatetako erakustaldiak egin dira: txirrindularitza, futbola, errugbia, defentsa pertsonala, boleibola eta esgrima, herriko kirol erakundeen laguntzarekin.

'Vital Eguna' 2021ek 13:00etan esan du agur, **La Florida parkean, musika klasikoko kontzertu baten eskutik**. Euskal Herriko Gazte Orkestrak, **EGOk Syrinx Ensemble** haize boskoteak, amaiera bikaina eman dio aurtengo edizioari, obra klasikoan aukeraketa bat barne hartu duen programa berezi baten eskutik.



Vital Fundazioa garapen jasangarriarekin konprometituta dago. Berrito ere, **'Vital Egunak' 'ERRONKA GARBIA - Ingurumenaren aldetik Jasangarria den Ekitaldia'** ziurtagiria lortu du, ingurumenaren gaineko eragin negatiboa minimizatzea lortu baitu. Erabilera bakarreko plastikozko elementuak kendu dira eta birziklatzeko hainbat puntu instalatu ditu. Erabili diren azpiegitura eta elementu gehienak berrerabilgarriak izan dira. Gainera, ekitaldi bakoitzera joateko garraio jasangarriak erabiltzea gomendatu da.



Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Casa del Cordón,
Cuchillería 24
01001 Vitoria-Gasteiz

www.fundacionvital.eus